





Juan Gervas

«Inoiz baino osasuntsuago gaude baina sekula baino gaixoago»

- **Koldo Mediavilla**, EAJ «Sorturekin hiru bilera izan baditugu, harremanak sendotzen ari diren seinale»
- **Larrun** Energia eredu berrirako gakoak
- **Intersexualitatea** Neska-mutil bereizketa auzitan
- **Net Hurbil** 800 milioi pertsona dira munduan, hirietako ortuekin lotura dutenak
- **Patxi Zabaleta** Absurduko kontuak edo zoroen herriko kronikak liburuaz



euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz

urriak 11 ostirala

non

Koldo Mitxelena
(Donostia)

ordua

09:00-14:00

*Oharra:

Plaza kopurua kontrolatu ahal
izateko, gomendagarria da
aurrez izena ematea

EGITARAUA

09:00 Aurkezpena

09:15 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

09:30 Ponentzia. **Mélanie Bourdaa** - Laboratoire Mica

Transmedia storytelling et audiovisuel: entre narration augmentée et marketing
Galderen txanda

10:15 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

10:30 Ponentzia. **Teknologia: Ikus-entzunezkoetan aurrerapen teknologikoak zertan diren**
Arantza del Pozo - Vicomtech-IK4

Euskarazko ikusentzunezko edukien azpitolaketa automatikoa

Igor Garcia - Vicomtech - IK4

Nora Barroso - EHU

adiUP: Info7 irratsaioaren albistegietan audio informazio semantikoaren
kudeaketa eleaniztuna burutzen duen sistema

Galderen txanda

11:15 Atsedenaldia

11:45 Ponentzia. **Pablo Iglesias** - La Tuerka.net

Disputar la Democracia en los medios

Galderen txanda

12:30 Bideo laburra

Esperientzia arrakastatsuak euskaraz

12:45 Ponentzia. **Carles Solà** - Plataforma per la Llengua

Medios y redes. Nuevos retos en la comunicación sobre el catalán

Galderen txanda

13:30 Ponentzia. **Axier Lopez** - ARGIA

XX. mendeko kultura-porrotik handiena:

telebista. Itzali eta erdu sarera

Galderen txanda

Euskara eta
teknologia berriei
buruzko jardunaldia

Antolatzaileak

ametzagaitza
OO taldea

argia

iametza
interaktiboa

info+:

www.euskarabildua.com

Babesleak

Donostiako Udaia
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Donostia 2019

Gipuzkoa
BERRIA

GAUR

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU ENKARGATUA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

DEPARTAMENTU DE CULTURA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Laguntzaileak

aniza
komunikazio grafiko

azkue
ANIZA

Deusto
Realidad de Ciencias Sociales y Humanas
Cuartero de las Ciencias Sociales

Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea
multimedia

eiken

LANGUNE

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak eta salmenta: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko irailaren 29a, 2.384. zenbakia

ASTEKO GAIA

INTERSEXUALITATEA Neska ala mutila den erabaki beharraren itolarria. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

JUAN GERVÁS: «Ez dago gaixotasunik, gaixoak daude». SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

KILOMETROAK Euskal Curriculuma ikastetxeetan da. IURE EIZAGIRRE / 15

IRITZIAREN LEIHOA

INPERIOAREN AGENDA MEDIATIKOA

ASIER BLAS MENDOZA / 22

ALDAIRA BEA SALLABERRY / 24

KATALUNIA “GUZTIZ LEIAL ILEZKORRA”

URKO APAOLAZA AVILA / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN San Mames Barria. KATTALIN MINER / 24

BERTSO BERRIAK Aldaketa bolada. ROSI LAZKANO / 25

ZIRTA Ez zarena antzetzuz. ANGEL ERRO / 26

ERDIKO KAIERA

PATXI ZABALETA: «Literatura nahitaezko premia baten adierazpena da». MIKEL ASURMENDI / 27

MUSIKA Xabier Lete gogoan, egunsentiari kantuan.

MYRIAM GARZIA / 31

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Tragedia eta komediaren artean. MYRIAM GARZIA / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

KOLDO MEDIAVILLA: «Sortu eta EAJren ituna behar dugu autogobernuaren arloan». MIKEL ASURMENDI / 39

NANCY H. HORNBERGER: «Bereizi egin behar dira hizkuntza, eta ahotsa, hizkuntza hartan ahotsa izatea».

MIEL A. ELUSTONDO / 43

TORTURA Frankismo garaiko lau torturatzaile atxilotzeko agindu du Argentinak. URKO APAOLAZA AVILA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47


NET HURBIL Hirietako hormigoiz gainean, kaletarrek ortu berriak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Neska ala mutila den erabaki beharraren itolarria

Zer da, mutila ala neska? Bada... ez dakit, begiratuta behintzat ez zaio antzematen. Sexu garapenean desordenaren batekin jaiotzen direnei, azaleko azterketa eginda ez zaie igartzen zein sexutakoak diren. Bi sexuen arteko marra oso garbi marraztea gustuko dugun Mendebaldeko kulturetan, jaioberria mutil ala neska izendatu ezina kolpe gogorra da, batik bat gurasoentzat. Umearen hobe beharrez baino, medikuen eta gurasoen lasaitasunerako erabaki azkarrak hartu eta okerreko ebakuntzak egin dira urte luzez. Zorionez, sexu garapeneko desordenarekin jaio direnen bizi-baldintzek hobera egin dute, eta jaioberriaren eskubideak erdigunean jarri dira.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



GABRIEL JOSÉ MARTÍN San Fernandon jaio zen, Espainiako Cádiz probintzian, 1971n. Sexu garapenaren desordena (SGD) batekin jaio zen. Hamar milioi gizonetatik bati gertatzen zaiona suertatu zitzaion: kanpoko sexu organoek femeninoak ziruditen. Medikuek erabaki zuten neska izango zela. Gurasoek Patricia izena jarri zioten eta neska moduan hezi zuten. Inoiz ez zen neska sentitu, beti uste izan du mutila dela, baina orduan ez zuen ulertzen zergatik. Neska moduan hezi eta mutil jarrerak (berak hala dio) izateak arazo asko sortu zizkion. Gorroto zituen panpinak, soinekoak eta neska-jolasak. Alferrik zen futboleko edo polizia-jolasetan ibili nahi zuela esatea, amak behin baino gehiagotan adierazi zion jendearen aurrean ez lotsarazteko. Nerabetan gizon garatu zen –“hala nintzen-eta”–; bizarra atera zitzaion, ilea gorputzean, eta zakila hazi zitzaion. Nera-bezaroa latza izan zen Martínentzat, hasi 12 urterekin eta 18 urte arte behintzat. Era guztietako isekak eta bazterketak jasan zituen eskolan. Gurasoek ez zuten medikuarengana eramanez 18 urte izan zituen arte –“nahiz eta begi-bistakoa izan zerbait oso-oso arraroa gertatzen ari zitzaidala”–. Gaur egun ez du inolako harremanik gurasoekin, bere ustez hain hauskorra izanda, lagundu beharrean 100.000 biztanleko hiriaren umiliazio eta erasoen jomugan utzi zuten.

Baina zortea ere izan zuen. Medikuek endokrinologo onak ezagutu zuten, diagnostiko egokia egin zion eta hark lagundu zion erregistro zibilean sexua aldatzen. 1991n legalki onartu zitzaion jaio zenez geroztik gizona izan zela. Patricia



Ezkerrean Gabriel José Martín, eskuinean Patricia. Pertsona bera da. Sexu garapenaren desorden batekin jaio zenez medikuek ez zekiten neska ala mutila zen eta azkenean neska moduan hezteara erabaki zuten. Martín beti sentitu da gizon.



ezabatu eta Gabriel José idatzi zuen. Bost aldiz sartu da ebakuntza gelan sexu organoak konpontzera, baina zirujauak ezin izan dute gauza handirik egin, ebakuntzak heldua dela egin baitizkiote eta SGD-dun pertsonen sexu organoetan gauza gutxi egin daiteke helduaroan.

Alemanian emakume edo gizon erregistratu beharrik ez dute izango

Sexu garapenaren desordena duen ekintzaile batek Nazio Batuen Erakundean salaketa jarri zuen, jaioberrietan sexu anbiguotasunak saihesteko ebakuntzak egiten zirelako. Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak ere hari horri tira dio eta azkenean legea aldatuko da. Azaroaren 1etik aurrera SGD-dun haurren gurasoek ez dute derrigorrez neska ala mutila den erabaki beharko. Urteak pasa ahala, ziurrenik nerabezaroan, gaztetxoak berak erabaki ahal izango du mutila ala neska izan nahi duen. Aldaketaren helburua ebakuntza desegokiak eta ondorengo nahasmen legal eta burokratiakoak saihestea da. Gurasoak bat ala bestea aukeratzera behartuak sentitzen dira, eta

MARITXU JATETXEA

- ▶ Era guztietako itsaskiak, etxeko haztegikoak
- ▶ Arraina plantxan eta labean
- ▶ Gomendatuak: itsaski parrillada, zapoa saltsan eta txerrikumea

/ Eguneko menua / Karta / Taldeentzako menu bereziak

© 943 399 062 / 943 399224

Euskadi Etorbidea, 13 / Trintxerpe
Pasai San Pedro (Gipuzkoa)

www.restaurantemaritxu.com



Zer da sexu garapenaren desordena?

SEXU GARAPENAREN DESORDENAREN BAT duenari sarri deitu zaio hermafrodita, eta azkenaldian indar handiagoa hartu du intersexual hitzak. 2006an, Lawson Wilkins Pediatric Endocrine Society (LWPES) eta European Society for Paediatric Endocrinology (ESPE) erakundeek argitaratu zuten ikerketan, sexu garapenean gertatzen diren desordenak gaixotasuntzat ez hartzea gomendatu zuten, eta hermafrodita eta intersexual hitzak ez erabiltzea. Erakundeok *Disorders of Sex Development* DSD terminoa proposatu zuten, aldaerak azaltzeko egokia delakoan eta gutxiesgarria ez delakoan.

Biztanleen %0,018k du sexu garapenaren desordenaren bat. SGD daukanaren sexu kromosomatikoa (XY / XX), gonadak (barrabilak eta obulutegia) eta sexu organoak (zakila eta bagina) ez datoz bat, eta beraz, ezaugarri genetikoak eta fenotipikoak, maila desberdinetan, baina gizonarenak eta emakumearenak, biak dira.

ondorioz, batzuetan okerreko ebakuntzak egiten dira, eta beste batzuetan, beharrezko ebakuntzak egin gabe geratzen dira. Alemanian urtero sexu garapenaren desordenaren bat duten 400 haur jaiotzen dira. Estatu hori da neurri hau hartu duen Europako lehen herrialdea.

Gabriel José Martín Bartzelonak bizi da eta psikologoa da, gizon homosexualentzako terapian aditua. Homosexuala da eta hainbat elkartetan hartzen du parte. Alemaniako erabakiaz iritzia eskatuta, SGD-dun pertsonen gorabeherak eta gizartearen pertzepzioak hobeto ulertzen lagundu digu. Ez dio garrantzi berezirik eman lege aldaketari, beste bi terminotan jarri du indarra: ikusgarritasuna eta pedagogia. Alemaniako albisteak balio dezala hortarako: kazetariak galdezka hasteko, SGD zer den azaltzeko, jendartearen gertaera ezagunagoa egiteko. “Umea jaiotzen denean eta esaten diotenean intersexuala dela, gurasoek esango dute ‘a, bai, badakit, egunkarian irakurri nuen hortaz’. Egoera hortara iristeko ez badu balio, ez du ezertarako balio, umea estigmatizatzen jarraitzen duzu: ‘Zu zer zara?’, ‘Zehaztugabea’, ‘Izorra hadi!’”. Lan pedagogikoa egiten ez bada, lege berriak gurasoen larritasuna arintzeko eta erabaki azkarregiak



Marina Sáenz transexual emakumea da, Donostian jaioa eta Valladoliden bizi dena. Bere ustez, sexu garapenaren desordenak dituztenak babestuago daude transexualak baino. Lehenek arazo genetikoak dituztenez, jendarteak errukia die, aldez transexualei horrelakoak esaten dizkiete: “Buruarin-marimutil hauek zertan dabilta?”.

ez hartzeko baino ez duela balio uste du Martínek. Gurasoen jarrerak halakoa behar omen du izan: “Ez dut hanka sartu nahi umearenganako erabakietan” eta “nola kontatuko dut hau familian eta inguruan haurra betiko estigmatizatuta gera ez dadin?”.

Katalanaren ustez, praktikan ez du zentzurik paperean hirugarren laukitxoan gurutzea egiteko aukera emateak, eta SGD-dunak erabaki dezala nahi duenean zein sexu hobesten duen. Anne Fausto-Sterlingen ikerketa ekarri du gogora. Biologo estatubatuarrek 1950. eta 2000. urte bitartean ezagutzera eman ziren SGD kasu guztiak aztertu zituen: 83. Horien %85,54 ados zegoen jaio zirenean aukeratu zioten sexuarekin. %14,46k esan zuen hanka sartu zutela eman zitzaion sexuarekin eta aldatzea nahi zuela. Alegia, denek gizon edo emakume izatea aukeratu zuten, inor ez zen geratu erabaki gabe eta inork ez zituen bere egin bi sexuak. Bere aldarrikapena hobeto azaltzeko Martínek bigarren adibide bat jarri digu, eta transexualek esaten dutena mahai gainean jarri du: sexu nortasunak ez du zerikusirik organo sexualen itxurarekin, organo maskulinoak izan ditzaket eta emakume senti naiteke. “Beraz, zertarako balio du organo intersexualekin jaio eta sexu nortasun zehaztugabea emateak, nortasun sexuala inoiz ez bada zehaztugabea? Queer teoriak –ezer baino gehiago mugimendu ideologikoa– gizon-emakume identifikazioa deuseztatzearen alde egiten du, baina horrelako mugimenduetan oso-oso bakanak dira intersexualak”.

Aldea dago, gaur ala duela 40 urte jaio

2006an, nazioarteko SGD elkarte eta ekintzaille garrantzitsu andanak aldarrikapenak papelean jaso zituen. Martínek garrantzi berezia ematen dio 2006ko akordioari, horri esker mediku komunitateak eta gurasoek badakitelako nora jo. Lau eskaera oinarritzko ditu akordioak. Bat: Ez dadila haurra hil. Malformazioek umearen bizitza eta osasuna arriskuan jar

dezakete eta umea ez hiltzea da lehenengo helburua. Bi: Umearen aparatu urogenitalak bere gaitasunak ez galtzea lortu behar da, eta era berean, plazera emateko balio izatea. Hiru: Etorkizuneko bizi kalitate egokiaren alde egin. Lau: Kosmetika kontuak helduaroan norberak egiteko utziko dira, bigarren mailakoak baitira.

Katalanaren ustez, azken urteotan aurrerapauso handiak eman dira. 2006ko akordioa dago, aldarrikapen asko lortu dira, protokolo medikoak onak dira, umeei gero eta azterketak sakonagoak egiten zaizkie. SGD dutenak gehiago dira emakume transexualak baino (%0,018 eta %0,012 hurrenez hurren), baina gaur egun lehenengo egoerak ondo konpontzen dira familian, eremu pribatuan eta medikuntzan. "Nekez jasango du beste batek nik pairatu nuena, baina bai, pedagogia egiten jarraitu behar da".

Zergatik jakin behar du Estatuak zer dugun hankartean?

Marina Sáenz transexual emakumea da, donostiarra. Aspaldi egin zuen alde jaioterrik, eta gaur egun Valladoliden (Espainia) bizi

da. Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen alde egiten duen Triángulo Fundazioko kidea da eta transexualitate eremuko koordinatzailea. Lanbidez abokatua da. Transexualaren begietatik SGD-dunen errealitatea interpretatzen lagundu digu.

Alemaniko lege berria beharrezkoa ala adabakia den galdetu diogu donostiarrari. Haren ustez, ez da adabakia, hamarkadatan

SGD-dunen kontrako krimenak egin dira, gero zein sexu nortasun garatuko duten jakin gabe, ebakuntzak egin eta bat ala bestea aukeratu delako. Sexua zehazteari uztearekin ordea, Sáenzek azpimarratu du Estatuak bi sexuak erregistratzeari ez diola uzten: "Itsututa segitzen dute bi sexuen kontuarekin, maskulinoa edo femeninoa, erregistratu eta kontrolatu. Zergatik ibili behar du estatuak zokomiran

gure hankartean? Zer axola dio sexu batekoa edo bestekoa izan?". Espainiako erregistro zibileko legea, Europako itxienetakoa dela dio Sáenzek, adibidez hauraren sexua jakiteko nahasgarria den izenik ezin da jarri. Euskaltzaindiak azken urteotan izen zerrendan egin dituen berrikuntzetan nabaria da donostiarrak gogora ekarri digun eredu. Euskararen egoe-

Gabriel Martínek ez dio garrantzi berezirik eman Alemaniako lege aldaketari, beste bi terminotan jarri du indarra: ikusgarritasuna eta pedagogia soziala

EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Báimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HEMEN PIRRI

Raquel (Lucas) Plateroren gogoeta

RAQUEL (LUCAS) PLATERO psikologo madrildarra da. Besteak beste, bigarren hezkuntzako irakaslea da eta Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen (LGBT) eskubideen aldeko aktibista. Sexu garapenaren desordenaz (SGD) eta Alemanian hartutako erabakiaz (ikus erreportajea) galdetu diogu. Ondoko hausnarketa egin digu: “Batzuen ustez ezinezkoa izango da pertsona baten sexua zein den ez jakitea. Gerta liteke norbaiten itxura, izena edo mundu honetan bizitzeko modua bat ez etortzea Mendebaldeko kulturetan dauzkagun bi aukerekin, gizona edo emakumea izatearekin. Alabaina, pentsaezina iruditzen zaigun horrek, aurrean dugun pertsonarekin baino lotura gehiago du gure segurtasunarekin (segurtasun gabeziarekin) eta gure antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoarekin.

Beraz, Alemaniako edo Australiako albistek (generoa ez ezartzea edo intersexualak heldua denean erabakitzea zein sexu nahi duen) gure arau sozialak azpimarratu baino ez dituzte egiten.

Espainian, nortasun agiriak ez digu beti esan gizon ala emakume garen. Orain kaosa irudituko litzaziguke, baina banaketarik ez zegoenean kaosik ez zegoen.



Dena dela, sexuei buruz konplexutasun gehiagoz hitz egiteko balio badu ona da. Intersexualen eskubideez –erabakitze gaitasunik ez duen jaioberriari derrigorrez ebakuntza ez egitea, jakinda heldua denean nahi badu egingo duela– hausnartzeko balio badigu positiboa da.

Administrazioaren ikuspegitik zer egingo nukeen? Bada, pertsonaren sexuari buruzko oharra kendu egingo nuke, denon bizitza errazagoa litzateke. Intersexualak ditut gogoan, baina baita transexualak ere”.

ra bereziari esker, izen bereko neskak eta mutilak ezagutu ditugu duela gutxi arte, baina Euskaltzaindiak egin du banaketa eta nekez aurkituko dugu Ilazki izeneko mutil jaioberria. Izan ere, udalerri askotako erregistroetan Euskaltzaindiaren gomendioak jarraitzen dituzte.

Estatuak (Espainiako du buruan Sáenzek) bi sexuak polarizatzeko duen burugogorkeria ez zaio atsegin donostiarrari, baina onartzen du gizartean sexuen banaketa oso barneratuta dagoela. Maskulinoa eta femeninoa daude jendartearen buruan, nahiz eta pentsamendu arlo gisa badiren polarizazio hori ezabatzearen aldeko korranteak. “Bihartik aurrera umeak sexuaren arabera ez ditugula erregistratuko esaten badut? Ezta nortasun agirian ere? Jende asko aztoratuko litzateke”. Transexualak erronka dira jendartearentzat, ezpainak margotuta eta gona jantzita kalean doan transexual emakumea (gizon itxurakoa) eskaera bat ari zaio egiten gizarteari: tratatu nazazu emakume moduan.


Queer teoria adibidez, interesgarria iruditzen zaio Marina Sáenzi, baina praktikara eramaten zaila: “Jende mordoa dago gizon edo emakume definitzen dena eta ezin diezu esan sentitzen duten hori kulturala baino ez denik. Noski kulturak eta formazioak eragiten dutela zure maskulinitate eta feminitatearen interpretazioan, baina horrek ez du esan nahi

gizon edo emakume sentitzea asmakizun kulturala denik”. Sexu polarizazioa muturrera eramatea edo ez, hori da kontua Sáenzentzat. Badira transexualak gizon eta emakume banaketa garbiaren alde egiten dutenak, baina “nire ustez badira zuri perfektuak, badira beltz perfektuak, eta beste asko ez dira ez bata ez bestea”.

SGD-dunak transexualak baino babestuago

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko transexualitatearen gaineko legeak ondo ezagutzen ditu Marina Sáenzek, eta munduko onenetakoak direla dio. Hala ere, botere publiko eta politikoen jarrera SGD dutenenganako malguagoa da. Esate baterako, Hego Euskal Herrian ebakuntzak egin ditzakete transexualek, baina asko borrokatu ondoren lortu dute eskubide hori. SGD-dunak berriz, 1950. urteaz geroztik operatzen dituzte. Jendarteak ere askoz hobeto ulertzen du SGDdunen egoera: “Jendeari esaten diozu SGDdunek malformazio genetikoa daukatela eta ‘a, noski, gizagaixoak!’, eta guregatik berriz, ‘buruarin-marimutil hauek zertan dabilta? Nola igartzen zaion ebakuntza! Zein gaizki geratu den!’. Sexu eta generoaren definizio perfektuaren tiraniak hor jarraitzen du”. ■





EGUNSENTIAREN KANTAK

Pier Paul Berzaitz
Estitxu Pinatxo
Magali Zubillaga
Erramun Martikorena

Urriak 5

20:00etan

Victoria Eugenia Antzokia

«Ez dago gaixotasunik, gaixoak daude»

Kontsultara sartu ginenerako, medikua hizketan ari zen.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

...

Historiaurrean bezala, jendartearen zati handi batek liderrak behar ditu. Zer gertatzen da bestela noraezean ziurtasunik gabe dabilenari garagardoa eta futbola bukatzen zaizkionean? Nork markatzen ditu jarraitu beharreko bideak? Nork erantzuten ditu eguneroko zalantzak? Galdera ororen arropostua, gure liderra, izateko pretentsioa du medikuntzak, eta erlijioak ere agindu ez ziguna hitzeman digu zientifikoki: betiereko gaztetasuna. Erlijioak hil osterako gordetzen zuena medikuntzak orain eta hemen predikatzen du. Hori pertsona desjabetzea da, bizitza bere gazi-gozeekin bizi behar dela ahanzte. Baina ez gaitezen engaina, etorkizunaren espektatiban orainari uko egitea erraztea da. Arazoa da ez dela pertsona bakar baten zoroa, jendarte oso baten gaitza baizik. Gero-minak eta betiereko gaztetasunaren ezinezko aspirazioak etengabeko zorion-eza dakarte, atsekabe orokorra. Egia da medikuntzak, zientziak eta osasungintzak aurrerapen arrakastatsuak eman dituztela, baina ez gara zorionsuagoak iturria ireki eta ura atera litekeela irudikatu ere egiten ez duena baino. Are gehiago, inoiz baino osasuntsuago gaude, baina sekula baino gaixago sentitzen gara. Horregatik, lehen gure bizitza apaizek gidatzen zuten, orain medikuek.

“Deprimituta nago”, “estresak jota nabil”, “sekulako antsietatea daukat”... Gure eguneroko hiztegi medikalizatuak erakusten du kolonizazioaren heina?

Medikalizazioa, edozein dominazioren gisan, erabat barneratzean hasten da lanean. Guk arras errotua daukagu. Zergatik? Gure burua justifikatzen duelako, esplikagaitza arrazionalizatzeko grinak itsututa bizi garelako. Zien-

tziak ezinbestekoak ditu etengabeko duda eta ziurtasunik eza, baina pertsonalki nahasgarriak dira. Ziurtasunik nahi ditugu, eta animo pattalez jaikitzean askoz errazagoa da “deprimituta nago” esatea atzo baino aldarte makalagoa zergatik daukazu azaltzea baino. Arazoa da medikalizazioaren dominazioa mutur larrietara iristen dela. Zer egiten dugu buruko gaixotasun larriak dituztenekin? Harrigarriak zaizkigunez, heldulekurik gabeko deserrietara garamatzatenez, eta oraindik gaitu ez ditugun mugekin talka egiten dugunez, pazientek lerdea dariela utzi arte tratatzen ditugu. Egia da gisako eritasunek une jakinetan tratamendu basatiak justifikatu ditzaketela, baina gehien-gehienak justifikaziorik gabe eta indiskriminatuki luzatzen dira denboran. Ez dauka izenik gure zaharrek egiten ari garenak.

Zergatik tratatzen dugu zahartzaroa gaixotasuna balitz bezala?

Zahartzaroak aldaketak dakartza, eta aldaketa horiek garaipen edo porrotak lege bizi daitezke. Lehenik eta behin, hil ez dena baizik ez da zahartzen. Zahartzea heriotzarekiko behin-behineko garaipena da. Hori esanik,

NORTASUN AGIRIA

Juan Gérvas. Lorcan (Espainia) sortua 1948ko azaroaren 19an. Valladolideko unibertsitatean doktoratutako mediku, irakasle eta ikertzaile hau medikuntzaren sektore kritikoko ahots ezagunenetakoa izateaz gain, *Sano y Salvo (y libre de intervenciones médicas innecesarias)* liburuaren egileetako bat da. Aditu talde zenbaiteko partaide, CESCA taldearen sortzaile eta koordinatzailea ere bada (www.equipoCESCA.org).





egia da zahartzean ez daukazula gaztetako sasoirik, baina bizitzaren ulermen zabalagoa daukazu, eskarmentu bat, sosegu bat, bizitza probetxugarri bat ahalbidetzen dizuna. Zahartzean eritasunak maizago agertzen direla? Ados, baina nork dio bizitza gaixota-

sunaren inguruan ardaztu behar dela? Sano bizi zaitezke, zahartzea ez baita gaixotasun bat, plazer bat baizik. Zoritzarrez, ordea, industria oso bat dago zahartzaroa eritasun bihurtzeko prest, gaitzak tratatu egiten direlako, eta hala zahartzaroaren kontrako botikak saltzeko zirrikitua zabaltzen delako. Tamalgarrria da biztanleriaren zati handi bat bai ala bai gaixo izendatzea! Pentsa zenbateko diru afana dagoen, zahartzen 30 urterekin hasten garela zabaltzen denerako! Plazer iturri handi bat deuseztatzen ari gara, eta okerragoa dena, lorpen sozial bat komunetik behera botatzen. Izan ere, zahartzea ez baita medikuntzaren arrakasta, lorpen soziala baizik.

Gure zaharrekin egiten ari garenak ez badu izenik, nola deitu behar zaio eskola-porrota medikalizatzeko ahaleginari?

Negozioa eta astakeria! Jendartea oso exigentea izaki, haur baten sozializazioa bide-zidorrrik gabeko autobidean aurreikusten du. Autobide hori gehiengoarentzat egokia bezain probetxugarria gerta liteke, baina zer gertatzen da bide horretan barrena kaltetzen den %30arekin? Autobide hori derrigorrez urratu behar denez, eskola-porrota agertzen dela. Jendarteak ez du zalantzarik nahi, irtenbideak nahi ditu, eta medikuntzaren eskutik eskola-porrota medikalizatzen da. Izugarriko basakeria da haur bat medikatu eta estigmatizatzea gehiengoaren moldean kabitzen ez delako. Jendartearen zurruntasuna ipurdibistan uzteaz gain, gizakiaren aniztasuna zapaltzen du. Ahantzi dugu gaur eskolan arazoak dauzkanak bihar Nobel saria irabazi dezakeela. Ahantzi dugu espezie robotizatu bihurtzean desagertuko garela. Ez dauden lekuan arazoak sortzen ari gara, eta bide batez, jendarte gaixo bat sortzen.

Zerikusia du prebentzioarekin eta diagnostiko goiztiarrarekin dugu obsesioarekin?

Hitzek engainatuta bizi gara. Bizitza aseguru bat saltzen dizunak heriotza aseguru bat saltzen dizu. Hala, edozertarako aseguruak dauzkagu, baina ezin liteke dena prebenitu. Onartu behar da bizitzaren zati bat gure ekin-tzen ondorioen ikasgaia izateaz gain, heriotza bera saihestezina dela. Heriotza kausa batzuk ekin-din daitezke eta saihesten ditugu, baina gorputzak beti atzematen du hiltzeko modua. Horregatik diot prebentzioak proportzionala behar duela. Esaterako, trafiko istripuak gutxitzeko nahikoa litzateke garraiobide eta garraio guztiak galaraztea, baina garbi dauka-gu ez dugula hori nahi, ezta? Gisa berean, alpinismoa debekatuko bagenu, lesio eta heriotza asko aurreztuko genituzke, baina K2ra igotzea galarazi dezakegu igotzen diren

erdiak hiltzen direlako? Ba medikuntzan gauza bera. Infekzio gaixotasun ororentzat txertoak saltzen hasi ginenean onura eta arriskuen arteko oreka puskatu zen. Prebentzioak oso onuragarria behar du arriskuak asumitzeko modukoak bihurtzeko. Tamalez, askotan ez da hala. Uneotan, zabaltzen ari diren txerto askok ez daukate ez hankarik ez bururik, negozio proposamen hutsak dira. Horrek izugarrizko kaltea egiten dio prebentzioari, eta zinez eraginkorrak diren txertoei mesfidantza itsatsi. Penagarria da. Nik aktibitate prebentibo bat negozio bilakatzerako doala igartzen dut, atzean erakunde zientifiko sortuberri bat zer suma dabilenean. Horregatik diot bizitzan denok hartzen ditugula arriskuak, bakoitzak bereak, eta arrisku horiek ezin direla ez aurrez artatu ez galaz, prebentzioak onura eztaba daezinak dakartzanean salbu.

Kolesterolarekin ere mundu guztia dabil txoxolotuta.

Hipotesi lipidiko batek kolesterol tasa altuak bihotzeko arriskuak emendatzen dituela dio. Momentuz, hipotesi horrek biztanleria osoaren mailan funtzionatzen du. Jendarte anglosaxoietan lotura frogatu ahal izan dute, Frantziako jendartean, ordea, ez. Alabaina, negozio izugarria dagoenez, hipotesi hori mundu osora hedatu da. Oraingoz garbi dagoen bakarra da hipotesia jadanik bihotzekoak zein bularreko anginak izan dituztenei, edo arazo koronarioak dauzkatenegi dagokie. Batek esan dezake, “badaezpada hobe lehenagotik kolesterola zaintzea!”, baina kontraintuitiboa den arren, ez du zertan. Hala, oso obsesio errentagarria ezarri dute plantan, elikadura industriaren letaginek diz-diz egiten dute, eta martxa honetan kolesteroletik salbu den ura saltzera iritsiko dira! Ezer arrarorik

“Basakeria da haur bat medikatu eta estigmatizatzea gehiengoaren moldean kabitzen ez delako. Gizakiaren aniztasuna zapaltzen du”

ezean, neurririk onena kolesterola ez neurtea da, bestela medikuen munduan sartzen zara, eta biometriak erabakitzen du zure kolesterola normala den ala ez, eta horrek ez dauka zurekin zerikusirik. Medikuntzak Elizak egiten zuena egin du, jatearen inguruko mandamenduak jarri, baina mesedez, jan lasai, izan zoriontsu, eta ez ukatu zure buruari eskaintzen ahal diozun plazerik.

Gure aitaren koadrilan prostata gora eta prostata behera dabilta azkenaldian...

Ez naiz harritzen. Kasu honetan, PSA delako odol analisia prostatako minbiziarekin lotuta dago, baina bere erabilera frogatu bakarrak minbizi horren berragerpena diagnostikatzeko baizik ez du balio. Gaur egun, alta, prebentzio neurri absolutu

gisa erabiltzen da, eta badaezpada sekula prostatako minbizirik ukan ez dutenei ere egiten zaie proba inolako oinarri zientifikorik gabe. Hala ere, okerrean da jende askok uste duela prostatako minbizi bat gainditu duela, baina egiazki, ebakuntza egin dion urologoari soilik egin dio aurre! Anitzetan tratatzen dira prostatako minbizi faltsuak, inolako aktibitateirik ez zeukatenak, prebentzioaren gupil zoroan sarturik egon ez bagina sekula diagnostikatu eta gerrarik eman gabe pasako zirenak. Baina prebentzioaren amua irentsita gaude, eta alferrik dela jakin arren, urologoak ere egiten du PSA proba! Hori azeria oilategian izatea baino okerragoa da. Horregatik, ez gaitzen erotu, eta PSA neurtu beharrean izan ditzagun sexu harremanak. Plazerak salbatuko gaitu.

Amaren lagunei, aldiz, mamografia entzun eta aurpegia aldatzen zaie...

Bularrak emakumearen parte oso garrantzitsuak dira. Plazer eta zorion iturri behar luke-

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

INAKIBEREZIARTUA

Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

Urdaiazpikoa

Medikuari deitu eta bere etxera joateko esan digu. Jendar-tearen gaitzak diagnostikatu eta errezeta prestatu ondoren, garagardoak eta urdaiazpikoa atera ditu mahaira. Tranpa bat zela pentsatu dugu, kamera ezkutu bat dagoela, baina ez. Predikatzen duena praktikatzen du, besterik gabe.

te, eta nola liteke urteekin amesgaizto bihurtzea? Zergatik pentsatzen du emakumeak bere bularrek hilko dutela, erauzi behar dituela, edozein unetan edozer probokatzen ahal diotela? Elizak lortu ez zuena lortu du medikuntzak, bularreko minbiziarekiko izu laborria zabalduz emakumea bere bularren beldur izatea. Emakumeengan minbizi ohikoena dela diote, eta egia da, azaleko minbizia aintzat hartzen ez bada. Alabaina, osasun publikoaren ikuspegitik bularreko minbizia ez da heriotza kausa garrantzitsu bat. Are gehiago, bularreko minbiziz hiltzen diren emakume gehienak 65 urtetik gorakoak dira, eta bai, egia da 10 emakumetik bat bularreko minbiziz hilko dela... 85 urtera iristen direnen artean! Gertatzen dena da datuak izugarri puztu direla, minbiziak ez direnak ere sartzen direlako zakuan. Minbizi histologikoak dira, mikroskopiotik so minbiziak direnak, baina praktikan sekula garatzen ez direnak. Hala, minbiziak ez diren minbiziak sendatzen ditugu, horrela emakume horiek gaixotasunaren bueltan bizi dira, gaitza noiz itzuliko, izututa. Hori mamografien ondorioa da. Okerrena da mamografia botika bat balitz desagertuta legokeela, ez dituelako gutxieneko irizpide zientifikoak betetzen erabiltzen den bezala erabiltzeko. Ez du minbiziaz hiltzeko arriskua apaltzen, eta okerragoa dena, heriotza gehiago dakartza beharrik gabeko interbentzioak eragiteagatik. Horregatik, emakumeei aholkatuko nieke, beharrik ez dagoen artean ahaztu ditzatela auto-esplorazioak eta mamografiak, eta goza dezatela euren titiez!

Bizitza erabat medikalizatu ostean osasun sistema pribatizatzeak zer lekarke?

Egun ere artatze gehien behar duenak jasotzen du gutxien, baina hori gupida gabe areagotzen da osasun sistema pribatizatu ahala. Osasun sistema sendatzearekin baino gehiago arduratzen bada kobratzearekin, Mallorcan tuberkulosiak jota hil den beltzarena bezalako kasuak nonahi agertuko dira. Jendarte oso arrazista denez "beltz bat zen..." pentsatuko zuten askok, baina gero zaharrak izango dira, eta gero klase ertainekoak... Pribatizazioa desgrazia bat da, diru-nahiak ezin du osasungintza gidatu. Politikariak osasun



publikoa kontrolatzen saiatu dira euren bandoko kudeatzaileak inposatuz. Non ikusi da hori? Zeelanda Berrian, ospitale publiko bateko kudeatzailea behar dutenean mundu mailako deialdia egiten dute, eta erakundearen izaera publikoari munduko profesionalik onena zor zaiola sinetsita daude. Hemen ez, bakoitzak bere laguntxoak dauzka, eta hauteskundearen emaitzaren arabera aldatzen da Galdakaoko ospitaleko kudeatzailea. Urteekin, laguntxoak inutit hutsak zirela frogatu da, baina politikariak euren porrota onartu beharrean, sistemari errua egotzi eta pribatizatzen hasi dira berriz ere, nahierara mugitu ditzaketen piezak edukitzeko. Ez gara konturatzen osasun sistema orain gertatzen ari dena ez gertatzeko dagoela pentsatuta, eta elkartasun soziala desagerraraztea gizarte kohesioaren zutabe bat eraistea dela. Ez gara ohartzen, edo ez dugu ohartu nahi.

Non gelditzen da pertsona, pribatizatzen ari den negozio ereduari?

Pertsonarik gabe ez dago ez medikuntzarik, ez kulturarik, ez jendarterik. Gizakiok errukiz eta gupidaz tratatu behar dugu elkar. Gupida besteekin eta gupida gure buruarekin. Horrek beste dimentsio bat hartzen du osasun arloan, gaixorik egotea ez baita sukarra izan edo mina jasatea. Gaixorik egotea ziurtasuna galtzea da, ahul sentitzea, hauskor. Sufritzen duenak samurtasunean hartzen du babes, ez ezagutza zientifikoan. Gure itun soziala hautsi nahi ez badugu, gaixoari goxotasun hori ematea dagokigu. Ez dago gaixotasunik, gaixoak daude. ■



KILOMETROAK

Euskal Curriculumuma ikastetxeetan da

2013-2014 ikasturtearen hasiera bereziago ari da izaten Tolosako Laskorain ikastolan. Eta ez bakarrik aurten eurek antolatutako Kilometroak jaia ate joka delako, baita Euskal Curriculumuma oinarri duen EKI proiektuko ikasmaterialarekin lanean hasi direlako ere.

| IURE EIZAGIRRE |

Argazkiak: Laskorain ikastola



Euskal Curriculumumaren arabera, eskolatik ateratzerako ikasleek pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten jakin beharko dute.

ORAINGOZ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan bakarrik hasi dira ikasmaterial horrekin lanean, baina aurreikuspenen arabera, datozen urteetan gainerako mailetan txertatuko dute, urtero maila berri batean.

Izenetik hasita, orain artekoarekiko zenbait berrikuntza dakartza materialak. EKI akronimoa da eta urteetan garatutako Euskal Curriculumum proiektuaren izaera islatzen du: “E”-k Euskal Curriculumumaren garapenerako ikasmateriala dela adierazten du,

KILOMETROAK



Intxausti
harategia · urdaitegia
Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664

*Ahora! lelopean egin du
Laskorain ikastolak aurtengo
Kilometroak jaiaren
bideoklipa. Irudian,
grabazioko une bat.*



Aldori landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)
☎ 94 627 15 09
www.alldori.es



Kontzeju Jatetxea

Eguneko menuak
Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak

☎ 943 683 327 / 656 710 073 · Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

Jatetxea - Restaurante
NICOLASA



*Txangurroa labean eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

☎ 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)



“K”-k konpetentzietan oinarrituta dagoela, eta “I”-k pedagogia integratzailea lantzen duela.

Zer dakar Euskal Curriculumak?

Asko entzun da azken urteotan Euskal Curriculumaz: hezkuntzan Euskal Herriaren izaera aintzat hartzeko modua dela, euskara babes-ten duela, zenbait erakundek behar baino jaramon gutxiago egin diotela... Jone Urteaga Laskorain ikastolako zuzendariak argi du zer esan nahi duen Euskal Curriculumak: “Gure curriculumean urteetan izandako hutsune handi bat betetzen du. Batetik, Euskal Herrian bizi gara eta bazegokigun curriculum propioa izatea, eta bestetik, pedagogia mailan ikastolen inguruan emandako hainbat aurrerapen jasotzen ditu curriculum honek”. Gainera, Euskal Curriculumak hasieratik izandako onespina ekarri du gogora, sustatzaile eta babesleak azpimarratuz: “Ikastolen Elkartek lanketa handia egin zuen, Kristau Eskolaren eta Sortzen Ikasbatuazzen onarpena izan zuen eta azkenean Eusko Jaurlaritzak plazaratu zuen”.

Zehaztapenetan sartuta, Europako hezkuntza erreformak eskatzen duenari jarraitu eta bizitzan norbanako gisa garatzeko konpetentzietan oinarritzen da. Gaitasun komunak, arlo guztietan landu beharrekoak, eta gaita-



sun espezifikokoak bereizten ditu. “Ikasle batek DBHko 4. maila bukatzean bizitzan beharko dituen oinarriko gaitasunak zeintzuk diren finkatzen du, nora jo eta nora heldu behar dugun”, azaldu du Urteagak. “Irteera profila da markatzen duena”, gaineratu du Kepa Goikoetxea ikastolako Bigarren Hezkuntza-ko ikasketa buruak. “Ikastetxetik irteterako landuta eta bereganatuta izan beharreko kompetentziak zehazten ditu, eta horrek beherakako sekuentzializazio bat dakar, adin bakoitzean zertan egon behar duten ikasleak trebatuta adierazten duena”.

Euskal Curriculumaren arabera, eskolatik ateratzerako ikasleek pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, eta egiten eta ekiten jakin beharko dute. “Eskolan dauden bitartean ematen dizkiegun ezagutzak, gero egoera erreala plan-teatzean, zertarako eta nola erabili ditzaketen jakiteko trebatuko ditugu”, dio Goikoetxeak. Horren adibide, EKI ikasmaterialean aurki dezakegun ariketa hau: “Naturako irakasgaien unibertsoari buruzko testu bat idatzi behar izan duzu. Lehen bertsio horri ‘Unibertsoa’ izena jarri diozu. Demagun lehen zuzenketa egin eta aldaketak egin dituzula testuan. Bi testuak gorde nahi dituzu, zein izen jarriko zenioke bigarren testuari?” edo “Orain demagun ikaskide bati bidali diozula

Juantxo

TABERNA



Ogitarteko eta pintxo
bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

URPA

autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. · 20140 Andoain

Tel.: 943 305050 Faxe: 943 305060

www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

UZTARRI
JATETXEA

janari
tradizionala



☎ 943 148 321 · Aizarnazabal

www.uztarrijatetxea.com

TXINGURA

TAILERRA, S.L.



ERAIKUNTZA METALIKOA ETA HERRERITZA

Egiburuberri industrialdea, 17 D
Errenteria (Gipuzkoa)

☎ 943 331 836 · Faxe: 943 552 388

sebas@txingura.com · www.txingura.com

KILOMETROAK




Gonzalo Camarón
*bitxidenda
erlojudenda*

Kale Nagusia, 11
Azkoitia (Gipuzkoa)
© 943 852 493
Faxa: 943 852 493

Jone Urteagak aldarrikatu duenez, "batetik, Euskal Herrian bizi gara eta bazegokigun curriculum propioa izatea, eta bestetik, pedagogia mailan ikastolen inguruan emandako hainbat aurrerapen jasotzen ditu curriculum honek".

hasierako testua eta bere iradokizunekin birbidaltzen dizula. Zein izen jarriko zenioke dokumentu berriari?". DBHko lehen mailaren amaieran gisa horretako galderei erantzuten jakin beharko lukete ikasleek.

Metodologia aldaketa

Ikasleek ez dute aldaketa handirik nabarituiko irakasgaietan, izan ere, Euskara eta Literatura, Lengua Castellana y Literatura, English, Matematika, Gizarte Zientziak eta Naturaren Zientziak liburukiak prestatu ditu Ikaslekar EKI proiektuko materialaren argitaratzaileak. Horiek lantzeko moduan, aldiz,



B R A N K A

Kontxako olatuen gainean, Haize Orraztearen ondoan, bertako produktuengandako arreta bereziarekin

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxa: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com

izango da berrikuntzarik: batetik, ikasleek unitate didaktikoaz gain, jarduera fitxak, hauek gordetzeko portafolioa eta lan-koardernoa izango ditu, eta bestetik, uneoro osagarri eta lagungarri, proiektuaren webgunean (www.ekigunea.com) zintzilikatutako materiala: matematikaren historia laburbiltzen duen animaziozko bideoa, abestien ikus-entzunezkoak, ariketa gehigarriak...

“Orain arteko metodologia-rekin unitate bakoitzaren amaieran proiektu bat zegoen eta EKIrekin proiektuak baino, egoerak aurkezten zaizkie ikasleei. Egoera horien aurrean jakintza ezberdinak mobilizatzeko eta aplikatzeko gai izan behar dute”, azaldu du Goikoetxea. Hona horietako egoera bat, Euskara eta Literaturako lehen unitatean ikasleek ahozko nahiz idatzizko interakzioa lantzeko aurkeztua: “Joan zen asteburuan ikastolako mendi taldearekin herriko tontor garaiena igotzera joan zinen. Zurekin eraman zenuen etxeko txakurra: Xei. Galdu egin zen eta faltan botatzen duzue. Xei bilatzeko: haren deskribapen zehatzena osatuz kartelak egingo dituzue, galdutako ere-

muaren deskribapena egingo duzue basozainak bilaketa antolatzeko eta kartelen deialdiari erantzunez telefonoz deituko dizutenak serio eta benetan ari direla ziurtatzeko galderak prestatuko dituzue”.

EKI ikasmaterialean garrantzi handia dute informazioaren eta komunikazioaren teknologiek (IKT). Laskorain ikastolako bi irakaslek aurreko ikasturtean landu zuten EKI proiektuko unitate bat lehen aldiz eta orduan baieztatu zuten beharrezkoak zitzaizkiela IKTak: ordenagailua, proiektore eta pantaila bat eta bafle bat. Izan ere, euren material asko (adibideak, testuak, irudiak,

webguneetarako loturak...) ikus-entzunezkoak dira. “Aurrean ditugun ikasle horiek gu baino askoz ikus-entzule arituagoak dira, beraz, gure erronketako bat da eurek egin behar duten lana erakargarri bihurtzea”, dio Goikoetxea.

Batzuetan hor datza zailtasuna, zenbait irakasle ez baitzuten IKTen ikaspenik jaso euren formakuntzan. Horregatik, Ikastolen Konfederazioak heziketa saioak eskaintzen dizkie EKI proiektuko materiala erabiliko

“EKIrekin proiektuak baino, egoerak aurkezten zaizkie ikasleei. Egoera horien aurrean jakintza ezberdinak mobilizatzeko eta aplikatzeko gai izan behar dute”

**Kepa Goikoetxea,
DBHko ikasketa burua**



ERBI BUS

MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, OV lokala
Orereta - Erreterria
Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbibus.com erbibus@euskaltel.net



AHORA!
KMK13 TOLOSA

TOLOSAKO UDALA

BIDEA EGINAZ, EKARRI EUSKARA AHORA.
www.tolosakoudala.net

Gaztetxoentzako Erronka

Urriaren 6an ospatuko da Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak jaia, aurten Tolosan eta *Ahora* lelopean. Sei gune izango dituen ibilbidea dagoeneko prest dago, baita egun horretarako musika eta kultur ikuskizunak ere. Eta gaztetxoak ere prest daude aurten lehen aldiz egingo duten Erronka abentura lehiaketan parte hartze-ko.

Gazteek ere jaiaren parte harrezaten nahi zuten antolatzaileek, ez zitezela jaiaren hartzaile soilak izan. Horretarako, adin horretako

jendearen artean hainbesteko arrakasta duen *El Conquistador del Fin del Mundo* telebista saioaren antzeko ekintza antolatu dute: gazteek alde fisikoa, irudimena eta adimena lantzeko hainbat sailkapen proba egingo dituzte Kilometroak jaiaren, goizean zehar, eta elkarrekin zezen plazan bazkaldu ondoren, finalera heldutako taldeek eurei emandako materialarekin baltsa eraiki eta ibaia jaitsi beharko dute.

Emaitzek erakutsi dute bazegoela horrelako ekintza baten premia: Gipuzkoan dauden 24 ikasto-

letako 21ek osatu dute euren taldea, eta dagoeneko bermatuta du jarraipena datorren urteko Kilometroak festan.

Baina Erronka hori ez da Lasakorain ikastolak duen bakarra, izan ere, beharrak eraman du aurtengo ikastolen jaia antolatzera. Azken urteetako matrikulazio kopurua hazi egin da eta duela urte batzuk Sakramentinoen eremua erosi eta ikastola egokitu zuen. Maileguei esker egin zituzten lan haiek eta zorrak kitatzea dute orain helburu.



Erronka abentura lehiaketan alde fisikoa, irudimena eta adimena landuko dute gazteek. Irudian, probetako bat.

THE NEST
Garagardotegia

THE NEST GARAGARDOTEGIA
Rondilla kalea 18, behea - 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 57 24

PETROMIRALLES
GASOLINA-ZERBITZUGUNEA

Karrika industrialdea / 6. partzela
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 305 058

24 ORDUZ

63 hornitze gune Petromiralles Cards-ekin

GASOLINA A GASOLINA B GASOLINA C GASOLINA D DIESEL AdBlue

duten ikastoletako irakasleei. Unitate didaktikoak nola dauden antolatuta, nola garatu behar diren eta nola ebaluatu aztertzen ari dira. Azken hori ere kezka iturri da Goikoe-txearentzat: “Ikasleak eduki berriak ikusi eta landu behar ditu baina gero hori egoera praktikoetan txertatzen ikasi behar-ko du. Hori nola egin, nola ebaluatu, aldaketa da guretzat”. Urteagak gaineratu digunez, orain arte ikaslearen garapena, eta ez bakarrik amaierako emaitza, aintzat hartu izan da ebaluazioan, baina orain, egoera baten irtenbidea aurkitu beharko dutenez, are garrantzitsuagoa bihurtzen da prozesua.

LOMCE legearen ezbaia

EKI ikasmateriala aurrerapauso bat da Euskal Curriculumaren aplikazioan, baina José Ignacio Wert Espainiako ministroak duela hilabete batzuk proposatutako LOMCE legeak izan dezake zeresanik gai honetan, hezkuntza zentralizatu eta ikastetxeen autonomia murriztuko bailuke. Tolosako ikastolako ordezkariak galdetuta, zehaztapenak falta dituztela aitortu dute: “Oraindik ez dakigu zein egutegi izango duen

legeak ezarpenerako, ezarri behar bada noiz arte mantenduko den, Eusko Jaurlaritzak ze indar egingo duen horren aurka... Guztia ikusteke dago”.

Dena den, azkenean LOMCE legea indarrean sartzen bada, arazoa izan daitekeela badakite: “Lege orokorrak curriculum orokorrean zer txertatzen duen eta kanpo ebaluazioek zer eta nola neurtuko duten, hor egongo da gakoa. Kanpo ebaluazioan sartzen dena curriculumean derrigortzen bada eta gurearekin bat ez badator, hor izango dugu arazoa”. Izan ere, ikastetxeek tituluak emateko eskubidea galdu eta ikasleak kanpoko froga baten menpe geratuko liratekeela azaldu du Goikoe-txeak. Hala ere, Urteagak adie-

razi duenez, ez dute etsitzeko asmorik: “Eusko Jaurlaritzari curriculuma finkatzeko ahalmena murrizten bazaio eta kanpoko ebaluazioa ezartzen badigute titulua lortzeko, jakin beharko dugu gureari uko egin gabe ikasleak horretarako prestatzen. Ohituta gaude”. ■

“Eusko Jaurlaritzari curriculuma finkatzeko ahalmena murrizten bazaio eta kanpoko ebaluazioa ezartzen badigute, jakin beharko dugu gureari uko egin gabe ikasleak horretarako prestatzen”

Jone Urteaga,
zuzendaria



apattaroztegia.s.l.
Altzari eta eraikuntzak orokorrean

Apatta industrialdea C/ Baratzondo E-33 20400 IBARRA
T 943679810 M 687449624 F 943679811
aroztegia@apatta.es www.apattaaroztegia.es



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Inperioaren agenda mediatikoa

LIBIAKO GUDAN gezur asko saldu zizkiguten, besteak beste, “matxinatuek” Tripoli hartu zutela erakutsi ziguten Qatarren grabatutako antzezlan batean. Manipulaztea gerra baten parte da, horregatik “egia” da gerretako lehen biktima. Beraz, propaganda eta iruzurrak ez dira arazoa, arazoa hedabide gehienek duten portaera da, informazio batzuei –faltsuak edo errealak– oihartzuna emanez eta beste batzuk ezkutatzuz edo isilaraziz. Horrela, AEBen eta mendebaldeko herrialdeen zerbitzura jarri ohi dira, agenda mediatikoaren erabilpen politikorako ezinbesteko peoiak bihurtuz.

2013ko abuztuaren 21ean Siriako oposizioaren tweet bat nahiko izan zen hedabideek albistegiak irekitzeko Siriako Gobernuaren ustezko eraso kimiko batekin. (...) Aldiz, ez zizkiguten erakutsi Siriako Gobernuak aurkeztutako bideoak, hauetan ustezko oposizioko kideak agertzen ziren arma kimikoak erabiltzen.

Adibidez, 2011ko uztail hasieran, Libiako lehen ministro ordeak salatu zuen kolonbiar mertzenarioak “matxinatuen” zerbitzura ari zirela borrokatzen. Noski, AEBek, Saudi Arabiak eta Qatarrek ordaintzen zuten zerbitzua. Berriak ez zuen inolako oihartzunik izan hedabideetan, baina hilabete batzuk beranduago, 2011ko urriaren 20ean Gadafi erail zutenean, Youtuben zintzilikatu ziren bideoak erakutsi zizkiguten haren exekuzio lotsagarriarekin. Bideo horietan Gadafi erailtzen duten bitartean Kolonbiako gaztelania perfektua entzun daiteke, baina noski, detaile hori ere hedabide arruntek ez zuten komentatu nahi izan. Isildutako edo baztertutako beste berri bat bezala. Qatarreko Gobernuak publikoki adierazi zuen bere ehunka militarrek “matxinatuen” alde borrokatu egin zutela Libian, hau da, atzerriar potentzia batek herrialdea inbaditu zuela inolako gerra deklaraziorik

gabe. Nazioarteko zuzenbidearen arabera horrelako gertaera batek lehen mailako berria izan beharko luke, baina beste behin hedabideek isilarazi edo bazter batean utzi zuten.

Berriz, 2013ko abuztuaren 21ean Siriako oposizioaren tweet bat nahiko izan zen hedabideek albistegiak irekitzeko Siriako Gobernuaren ustezko eraso kimiko batekin. Youtubeko bideoak erakutsi zizkiguten, aipatu gabe bat baino gehiago salatutako erasoaren dataren aurretik igota zegoela Interneten. Aldiz, ez zizkiguten erakutsi Siriako Gobernuak aurkeztutako bideoak, hauetan ustezko oposizioko kideak agertzen ziren arma kimikoak erabiltzen. Aspalditik Siriako Gobernuak salatua zuen matxinatuek Saudi Arabiako arma kimikoak zituztela eta erabiltzen ari zirela, froga gisa gerrillari matxinatuei ustez atzemandako arma kimikoak aurkeztu zituen. Edonola ere, gertatutakoaz egon dira beste zenbait bertsio eta testimonio ere bai. Batzuek ustezko eraso matxinatuek izaniko istripua izan zela esan zuten, baina bertsio honek ere oihartzun txikia izan du. Antzera gertatu da bost hilabete bahituta egon den kazetari italiar batek egin dituen adierazpenekin, esan zuen matxinatuei entzun zuela beraiek egin zutela eraso kimikoa nazioarteko esku-hartze militarra bortxatzeko.

Salatutako eraso kimikoak nori egiten zion kalte eta nori fabore? Obamak Siriaren aurkako esku-hartze militarra egiteko zehaztutako marra gorria arma kimikoen erabilpena zen eta hain justu eraso salatu zen NBEko inspektoreak iritsi berriak zirenean Siriara. Bitxia, Siriako Gobernuak gonbidatuta zetozen eta lur siriarra zapaldu bezain laster Gobernuak berak eraso kimiko bat egiten omen du. Hausnarketa kritikoa egitea da manipulazioei aurre egiteko modurik eraginkorrena. Halere, ez dakigu zein den egia, bakarrik jendea milaka ari dela hiltzen Siriako gerran eta kanpoko esku-hartzea ezinbestekoa izaten ari dela gerra hau mantentzeko. ■







JAKES LARRE

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦

Aldaira

BIZI BATEAN gutxitan gertatuko da etxe alda baten izari bereko laxante libragarririk, fisikoki, materialki eta emozionalki. Prozesu sinple eta basiko bezain eraginkorra.

Hasteko, ordura arte bizi eta egin izana, dena, perfektuki eta definitiboki sailkatu da.

Armairuak oro zolaraino hustu ondoan puskileriek kausitu dute lekua sistematikoki eta pragmatikoki, firurika; zenbaitez harro eta besteez lotsa, gaur zaren hori egin zaituzte oro, alta jujamenduaren eguna heldua zaie.

Badira besagainka despeditzeko piltzarkeriak: ahantzi nahiago diren gertakari eta momentuak, baita gehiegi higatu puskateriak jada enpatxutik bazterturik hobe direnak. Bestalde doaz praktikoak: egunerokoan beharrezkoegiak, esku pean laster izateko gisan behar bezala sailkatu eta etiketaturik kutxetan. Azkenik, denbora hartuz, balde finagoetan poliki apailatu dituzu hainbeste beharrezko ez baina harrotasunez

edota amultsuki ondoan eta memorian gorde nahi dituzunak, urtez urte metatu detaile ezdeusak, iraganezko une, jende eta gertakarien lekuko soilak, behakoz az besarkatu orduko aspaldian airatu hotsak zuretzat bakarrik berpitzarazten dituzten zentzuz bete girgileria kuttunak.

Armairuak oro zolaraino hustu ondoan puskileriek kausitu dute lekua sistematikoki eta pragmatikoki, firurika; zenbaitez harro eta besteez lotsa, gaur zaren hori egin zaituzte oro, alta jujamenduaren eguna heldua zaie

Geroxeago da une hunkigarria: prozesu geldiezin eta gorde ezineko denboraren lekuko, edukiontzi bakoitza bere ondoko lekura daramate bihotza urratzeko balet laniznantean. Hustuketak agerrarazi ditu gela huts-hutsak, zuregana iraganeko zorion eta algaren oihartzun hutsala besterik ez dute itzultzen. Ausatzeko denborarik izan balitz –hots, aisia hartzeko denbora bazenu–, negar egingen zenukeen, denboraren ihesari, bezperako on-gaitzei, desagertu guziari.

Zoko-moko oro pruntki torratzean oroitu zara budistek diotenaz: gauzen eta gorputzaren garbitze eta antolatze hasten da pentsamoldeen garbitasuna eta hortik beretik arimarena. Azkenean, metatu zoriz gaitz, ez behar, estropuen purga batbateko eta definitiboa, mustuka ukaldika.

Eta azkenean: *klunka*, ordenatutako guzia zigilatuko duen sententzia nola. Armairu elektrikoan argindarra mozteak eragin *klunka* gorra espazio

handiegian paretaz paretara erreferaka erraieraraino heldu zaizu, ezintasunetik libratu beharrean jada. Laster, zarrailuari azken aldikoz bi itzuli emanen badizkiozu ere, atari guziak zabalik ikusarazi nahi lizkizukeen soinu hain partikularra. ■



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

San Mames Barria

ASKO hitz egin da dagoeneko San Mamesen eraberritzeaz, estreinaldiaz; ez ordea nahikoa nire ustez, ez ordea esan beharrezkoak esanda, nire ustez. Asko ikusi ditugu zaleak negarrez, zaleak triste, eta ondoren tristura horri aurre egin nahi zion hainbat erreportaje eta programa “berezi”, San Mames berri horren abantaila eta edertasunak azpimarratuz. Partidaren eguna iritsi arte.

Halako eskandalo baten aurrean hortzak estutzen ditut. Beste aldera begiratu nahi izan dut, eta ezin eutsi aizue! Ze, izan ere, jakin jakingo duzue 212 milioi eurotik gora-

ko kostua izan duela handitasun honek. Milioi horiek Bilboko Udalak, Eusko Jaur-laritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu dituztela besteak beste. Dena futbolaren alde, *res publica* balitzan. Eta ez gaizki hartu, zeren pentsatu nahi dut jakinaren gainean gaudela denok, baina nik galdu ditudala protesta denak, kexak, zuzendaria-ri eskutitzak, manifestaldiak. Izan ere, hala ez bada, pentsatzen hasi behar-ko, euskaldunok *besteekin* alde handirik ez dugula, eta geuri ere golazoak sartzen dizkigutela; ederrak. ■





Urko Apaolaza Avila

◆ ARGIAKO KAZETARIA



Katalunia “guziz leial ilezkorra”

ARTUR MAS Kataluniako lehen-dakariari “leialtasuna” eskatu dio Mariano Rajoy Espainiakoak. EAJren eta PSEren arteko itun fiskalean ere Patxi Lopezek “leialtasuna eman eta exijituko” duela azaldu du. Modan jarriko ote da berriz ere ditxosozko hitza?

Zenbatetan ez ote dugu irakurri “*muy noble y muy leal*” goiburua gure erakundeetan? Iztuetak “guziz leial ilezkorra” deskribatu zuen Gipuzkoa. Iraganean, erreinu eta leinuen garaietan, ohorea eta leialtasuna zegoen ezeren gainera, Erdi Aroko baladak dira lekuko.

Eta hara, aldeko arrazoirik gabe eta ondokoa konbentzitzeko argumentuen faltan, leialtasuna inbokatu du Mariano Rajoyk, basailu katalanek traizio egin ez diezaioeten. Ez diz-

kie Espainiaren bertuteak eta dohainak nabarmendu, ez die herri gisa duten eskubide subiranorako onartu. Ez, “leialtasuna” galdegin die, fededunak Jainkoari dion gisan: ...*leialitatez begir'e-
zozü fedia*, maiteminduek elkarri dioten moduan: ...*leial dük bik
amorina!*

Baina Generalitatak erantzun dio ez dela inuzentea izango.

Leialtasunaren deiadarrak huts egin da, Rajoyren aholkulari banintz, Masi beste gutun bat bidaltzea gomendatuko nioke, oraingoan hain bogan jarri den kutsu belikoz inspiratutako balada bat barnean dararamala. Eta horrela hasiko litza-teke Mariano zaldunaren eresia:

*Hartuko dot esku batean gezia
bestean zuzi iratxegia,
Erreko dot Katalunia guztia!* ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Rosi Lazkano



Aldaketa bolada

Hamalau urte zitula
neskame lanetan hasi
nesken jakin beharra zen
obeditzea lehenbizi
gau eta egun langile
diru gutxi irabazi
hala ere bizitzarako
nonbait, ondo zuten hezi.
Behar beharrezkoa zen
plantxan ta josten ikasi
ezertan ez zekiela
etsita zenean kasi...
Nobioa egin eta
indultoa irabazi!

Sei urtez nobioakin
eta elizaz ezkondu
estreinatu beharko zen
hainbeste zuena zaindu!
Ordura arteko beldurrak
nola bat-batean kendu?
Baina hogeita bat urtek
askotako ematen du!
Bikote idilikoa
nahiz pixkat behar zuzendu
ume bat, bi eta hiru
painala eta ukendu...
Etxekoandre izan arren
neskemetza ematen du!

Berrogei eta hamabost
urte kunplitu jada
nahiz sinisteko zaila den
da aldaketa bolada
beti hain lotsati eta
orain ezer ez da traba
ezagutzen zuten denak
harrituta ditu laga.
Nahiz ez izan senidea,
senarra edo alaba:
“Errikotxerako zita”
Ainhoaren* mezua da...
Bertsoak sentimentun bat
nahastu dio behar bada. ■

*Ainhoa Agirreazaldegi

Sorta osoa QRa erabiliz,
eta Gaitzerdi blogean.



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Ez zarena antzeztuz

INTERNETEKO orrialde batetik bestera, Kavafisi arrazoi eman eta berez inportantea dena bidaiatzea dela frogatuz, nondik hasi dakizun eta non bukatuko duzun ere badakizun ariketa horretan nengoela, film labur baten trailerrera iritsi nintzen. Oraindik ez nekien film laburrek trailerrak izan litzaketenik. Ikusi nuen kuantitatiboki apurra baina oro har zati handiak ondorioztatzen utzi zidanaren arabera, filmak aktore baten interpretazio arazoak azaltzen zituen. Protagonistak film batean gayarena egin behar du, baina bera heteroa da eta horrek beldurrak eta segurtasun gabeziak sortzen dizkio. Filmatu beharko duen sexu eszenaren beste partaidearekin entseatzeko biltzen da. Trailerrak ez du korapiloa askatzen, baina dauden aukera gutxien artean ez dirudi zailegia asmatzen.

Horretan tematu beharrean, batek daki zergatik, hasi nintzen film laburraren protagonista bera, Danny Lopes, gay ote den asmatu nahian. Fikzioak bere izen errespetagarria galtzen ez badu, lausotu behintzat egiten duen tokia gogokoa izaten dut. Aitzakia hori gutxienez eman nion neure buruari, aktore gayarena egin behar duen alegiazko aktore heteroarena egin behar duen egiazko aktore gayaren istorioa, *making of*-a neure buruan proiektatuz.

Zinemaren barruko zinema den neurrian, aktorearen sexualitateak alda dezake filma nola ikusi. Hortik kanpo? Askok aipatu da egunotan *50 Shades of Grey* eleberri harrigarriro arrakastatsuen filmatzeko tenorean egileak ez ziola Matt Bomerren hautaketari oniritzia eman, zaleen faborittoa bazen ere, Bomer gay aitortua izanik istorioak sinesgarritasuna edo galduko zuelakoan; eleberria irakurri dutenek esan didatenagatik egileak beste kontu, derragun, literarioagoetan horrelako kezkarik inondik inora agertzen ez duen arren.

Liburuaren fanak haserre omen daude. Azkenean beste batek eraman du papera, *Queer as folk* telesailean gayrena antzeztzen zuen heterossexual batek. Kontrako norabideak gaitzagoa ematen du oraindik.

Orain gutxi, lehenago aipatutako rol zurrumbilo zoro horietako batean murgilduta ikusi nuen neure burua eta lehengo trailerrarekin oroitu. Lagun batekin alokatzeko pisuak ikusten ari nintzen eta eguneko hirugarrenean pisuaren jabe beharrean agentzia bateko langileak arreta eman zigun. Gaztetxo batek. Ezin ukatu egoera erlaxatuagoa dela. Ustez. Berehala ohar-tu nintzelako langilearekiko berdintasun planoan gaudela uste dezakegun arren, une horretan dirua duenak

boterea ere baduela eta bere ikuskera inposatzen duela, baita berdintasuna ispilatzea ere.

Giro lasai eta lagunkoi horretan, komuna erakutsi eta zein txikia zen ikusita, aurretik ikusitako pisuko pasadizoa berritu nuen, lagunak aditu ez zuelako.

Jabeak ia ahapeka ohartarazi zidan dutxa bi lagunentzat aproposa zela. Nire adiskideak (mutila) barre egin zion nik kontatutakoari, ez baikara inolaz ere bikote, eszena irudikatuta. Agentziako mutila gure barreei gehitu zitzairen. Gaizkiulertua landatu eta okerra hazi zen. Gu biok maritxuak ginela pentsatzea ere. Ematen zuen une batetik bestera gay jendeaz gaizki esaka hasiko ginela. Nire lagunari eszenak dibertiarazten zion eta ez zuen moztu. Nik segundo batez irudikatu nuen irrien azpian gure ustezko homofobiak ematen zion nazka. Paperak aldatuta, nirea ez den roletik bestea, babesgabe, gure manura antzezttera behartuta

ikusteak sentiarazi zidana ez dakit nola deskribatu.

Jakina, ez dugu pisu hori hartu. Dutxan ez zegoen bientzako tokirik. ■



Antton Olariaga



«Literatura nahitaezko premia baten adierazpena da»

Politikaria, abokatua eta euskaltzaina da. Alta bada, *Absurduko kontuak edo zoroen herriko kronikak* (Pamiela) liburuaren zioaz mintzatu gara berarekin, filosofoa eta idazlea ere bada-eta, oparoa gainera. Bere kontuek –ipuek– norbanakoaren estetikatik nor-anizkoaren etikan hartzen dute funtsa, absurdoaren (des)teoria kaotikoan oinarrituta. Absurduko kontuendako toki bat nahi du literaturan.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban



ALEMANIAKO GRABATU herrikoi batek (XVI. mendekoa) ilustratzen du *Absurduko kontuak edo zoroen herriko kronikak* liburuaren azala. Pamiela argitaletxeak hautatua da, liburuaren egileak erran digunez: “Kontuak edo ipuinak absurduaren nire ikuspegi filosofikotik idatzita daude. *Absurduaren (des)teoria kaotikoa* hitzazurrean hori aztertzen eta argitzen saiatu naiz. Nire filosofia tesia presokratikoen hizkuntza filosofikoari buruz egin nuen. *Ukoreka, Badena*

dena da eta *Arian ari* trilogian haren funtsa ere badago. Tesia hitz bati buruzkoa da: Dena. *Ser, être, to be...* Aldi berean, dena guztia ere bada. Absurduko kontuak azaldu ditut ipuin haue-tan, filosofikoak ere badirenak”.

Euskomunia ala Zoroastroren artalde izena du zure lehen narrazio liburuak. Zorotasunaz idatzi duzu ere azken honetan. Zer dira *Absurduko kontuak*?

Literatur lana da, baina bizimoduari buruzkoa ere bada. Kokapen berezian gertatzen dira kontuak, Kokoherrin, zoroen herrian. Herri horren arazoak eta gorabeherak agertzen dira kontu bakoitzean. Badute kritika iluna, baina normalean eroen herri ipuinak –txisteak ere batzuetan– kontatu ohi diren bezala idatzita daude. Ikuspegi literarioagoa emanez asmatutako kontuak dira. 11 argitaratu ditut; baditut bestelakoak ere hor nonbait.

Nola definituko zenituzke ipuinok?

Kontu mota bat da. Pikaro eta bihurrien kontuak izanik ere, hauek beste espezie batekoak dira, pertsonaiek ez dute hainbeste axola, kolektibitatea edo herria da inporta duena.

Politikaria, lege gizon, filosofoa eta literatur egilea zara, euskaltzaina halaber. Zoro landa ere bada zurea, zoro samar zure bizimodua.

Denok dugu zerbaite mundu horretatik, denok izaten baititugu ametsak. Lo gaudenean egiten ditugun ametsak askotan ez daude logikaren

“Bizimoduak ez gaitu asebetetzen, badauzkagu etsipenak, baina literatura ere ez da asegarria, literatura nahitaezko premia baten adierazpena da”

menpe, beraz, denok aitortu behar dugu zoro-tasuna ez zaigula guztiz arrotza, Kokoherrin ez zaigun bezala. Kokoherrin besteen herria da, baina azpi-azpian beste horiek gu gara. Egia da, nire bizitzak baditu gorabehera asko, eta gure herri honek ere bai, nahiz eta batzuetan neurri edo nora bakarreko gizona izaten saiatzen naizen edo espezialista izaten hartzen dudana xedetzat. Dena den, politikan ari naizenean filosofia-ko iritziak ezin ditut alde batera utzi, eta filosofiaz ari naizenean politikagintzan egindakoa ere ez. Eta berdin beste arlo batzuetan.

Kokoherrin besteen herria da, baina azpian beste horiek gu gara... Sakondu aburu horretan, arren.

Kokoherrin da guztiok arrotza bezala jotzen duguna, baina, azkenean, gure baitako arrotzatasuna agertzen diguna nolabait. Koko hitza agertzen da gure ohituretan toki askotan. Koko arrotza zen, baina ez zentzu txarrean, demagun, maketo bezala, beste modu batean baizik. Orixek erabiltzen du koko hitza, *Euskal-*

Trintxerpe hartatik Zabaleta hau

Gorka Trintxerpe ezizenez kalera-tu zituen *Zorion baten zainak* eta *Ezten gorriak* lehen poesia liburuak, frankismo garaia zen. Patxi Zabaletak dioenez, olerkia pape-rean zahartzen da, horitu, eta urteetara irakurtzen duzunean, idatzia ez da idatzi zenuenean bezalakoa. Denbora ez da alferrik iragaten.

Ja genero guztiak landu ditu. Anjel Lertxundi du gustuko idazlea, euskaraz. Gaztelaniaz, berriz, Pío Baroja: “Bi lerrotan pertsonaia bat azaltzen du, eta bi lerrotan abando-natzen. Aparta da”. François Mauriac ere du idazle kuttun. Honen eragina azpimarratu digu.

Ohar juridikoa, literarioa eta zinikoa testu laburra idatzi du azken liburuan: “Batetik kritika sakona, zentzuduna eta zorrotza faltan hartzen dut. Horretaz gain, nire bizipenetan baditut kontu bitxiak. *Zorion baten zainak* liburua-ren olerki bat –baita beste poema batzuk ere– musikatu zuen Ipar-raldeko talde batek niri deusik

esan gabe. Nire nobelaren bat ere aurkeztu zuten lehiaketara. Ez zuten saritu, baina epailetako batek ez zekien nirea zenik ere. Beste garaiak ziren noski. Hala ere, esaten dut ez ditzatela poemak musikatu ezer adierazi gabe. Irakurri eta kritikatu bai, noski”.

Joxemiel Bidadorri gorazarrez

Ukoreka, *Badena dena da* eta *Arian ari* trilogia eta *Errolanen harria* nobela Txalaparta-rekin kaleratu zituen. Zabaletak idatzi duenez, argitale-txeak ez zion *Eneko Aritzaren bilobia* nobela arrazoi politikorengatik argitaratu: “Politikan krisi bat iritsi zen eta EPPK-k (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) pertsona non grata izendatu ninduen. Samina handia bizi izan genuen familian. Nik preso-iei buruzko gauza berak defendatu ditut beti eta hala segitzen dut. Alaba preso izan baino lehen, orain preso dagoenean, eta egongo ez denean ere defendatuko ditut. Orduan lagun batzuk izan nituen alboan, Joxemiel Bidador horien

artean. Joxemielek bazuen ezaugarri on asko, eta horietako bat hauxe: Nafarroako euskal idazleen lanak zuhurtasun handiz ikertu zituen. Idazle gutxi gineneko garaiko egi-leak eman zituen ezagutzera, nafar literatura bultzatuz. Nire kasuan, esaterako, 1972an, TOPEk (Tribunal de Orden Público) *Zorion baten zainak* debekatu zuen. Joxemielek horiek guztiak gogorarazi zituen. Lan handia egin zuen. Goiz hil zen, zoritxarrez”.

Korori, Olatzi eta Mirentxuri eskainia

Absurduko kontuak edo zoroen berriko kronikak liburua “Hizki xehez egu-nero Euskal Herriaren askatasuna idazten dutenei” eskainia da. Laster lau urte eginen ditu preso alabak: “Inor ez dago prest senide bat espetxean edukitzeko. Luze eta gogorra egiten ari zaigu. Askotan esaten diot berari, gazteagoa izaki eta alaba: ‘Ni geldituko naiz, eta joan zaitez zu’. Despedida ueña izaten da gogorrena”.

dunak poeman esate baterako. Iruñean, erdaraz ari garenean, “*Que viene el coco!*” diogu. Leitzan erdaldunek erabiltzen zuten koko hitza, herrira etortzen zirenek, euskaraz ez zekite- nek eta euskaraz ikasi nahi zutenek, ez ziren euskaldun peto-petoak, askotan ondoko herrikoak ziren, arrotzak. Kokoherrir arrotzen herria da, baina arrotz horien tartean ere gu bagara.

Klanak daude Kokoherrin: Hitzontzi, Jakineltze, Ustepuxika taldekoak, besteak beste.

Eta agintariak: auzapeza, apaiza, baita petrikiloa ere, bere buruari sendalaria edo *curandero* esaten diona. Klanak badaude, baina ez dira talde definituak. Kontu mota honetan protagonista beti herria da, protagonista herria denez gero, izenak aldatzen dira, pertsonaiak ez daude guztiz desribatuak, ezta guztiz definituak ere, deskribapenen bat edo beste baino ez dute. Taldeak du garrantzia, baina pertsonaiek beraiek alkatea, apaiza, herrizaina, petrikiloa edota tratulariarekin –boterearekin eta indarrarekin– dituzten harremanek definitzen dute taldea.

Inorrezko, Inonezko edota Inoizko ize-neko pertsonaiak ere badaude.

Halako asmaketak egitean saiatzen naiz inor ez diren batzuk agertzen, baina hor dabiltzanak, nonahi edota noiznahi, txantxetan eta gezurretan, apustuak eginez, egiaren eta gezuraren arteko gehiegikeriak eginez.

Kokoherrir Euskal Herria ote?

Zalantzarik gabe.

Azken ipuinak taia delakoan hartzen du funtsa.

Taia Leitzan ezagutu nuen, baina gehiago erabili zen Goizuetan edo Arantzan. Iruñean oraindik esaten dute “*comprar a la osca*”. Taian koskak eginez erosten zen. Nik Iruñeko dendetan ezagutu nuena ez zen taia jada, errege-lak edo izaten ziren. Ohitura berezia zen oso. Taiaren lekukotasuna eman nahi nuen kontu horrekin, baita aditzera eman ere dirua ez dela hain zaharra: 3500 urte baino ez ditu. Egiptoko kulturetan ez zen dirua erabiltzen, Greziaren garaikidea da. Taia gure kulturaren ezaugarria da, gaur dauden bitarteko digitalekin eta birtualekin halako irudikapenak egin litezke. Taia digitala proposatzen dut nolabait diruaren truke bezala, bera bihurtu liteke diru fisikoaren ordezkia.



“Lo gaudenean egiten ditugun ametsak askotan ez daude logikaren menpe, beraz, denok aitortu behar dugu zorotasuna ez zaigula guztiz arrotza, Kokoherrir ez zaigun bezala. Kokoherrir beste herria da, baina azpi-azpian beste horiek gu gara”.

Hiztegian nekez aurki daitezkeen hitzak darabil-tzazu: palda, idoi, errelo... Sopikun hitza bes-talde. Zeren sopikun da Patxi Zabaleta?

Sopikuna kidea da, kide mantentzen dena une zailetan. Sopikun da ondoan dena, albo-koa. Ez dut nire burua horretan irudikatu nahi. Edo bai. Nola gerta. Unean une, bata-ren edo bestearen paperak egiten baititugu. Horixe adierazi nahi dut.

Kontalari ospea duzu.

Bai, atsegin dut kontua. Kontalariak badu beti kutsu zaharkitu pixka bat. Nonbaitetik etortzen diren kontuak, antzinako kontuak, ekartzen ditu. Absurduko kontuek antzinaz hitz egiten dute, badira bat edo bi, baina gehienak etorkizunari buruzko kezke ari dira, diruarekin edo aurrerapenarekin zeriku-sia dute. Etorkizunari buruz ari da kontalaria,

eta nahitaez kontalari errepikatzaile ageri da. Protagonistei arazo absurduak sortzen zaizkie eta aterabide absurdua ere ematen dizkie ipuinei, ez da ezer konpontzen ipuin hauetan. Ipuinak dira, ez dira nobelak. Tira, nobeletan ere ez da deus konpontzen.

“Toki bat literaturan absurdoko kontuendako” aldarrikatu duzu prologoan. Leku bat literaturan eskatzen ote duzu?

Kontu hauek ipuin espezie bat izan daitezke, egitura egokia dute literatura egiteko. Berezko ezaugarri batzuk dituzte. Alegia, kontu absurduak txantxetan edota txisteen bidez adierazten saiatzen gara. Euskal Herrian ohitura zaharra da eroen kontuak. Donostiarrek Bilbotarrez hau edo hori diote, hauek ere haietaz; gipuzkoarrek nafarrez eta alderantziz. Orobat, herri bakoitzaren ondoan badago herri ero hori. Andaluzian, esaterako, Lepeko kontuak oso ezagunak dira. Klase guztietako kontuak dira, literatur mota baten errebindikazioa da nolabait. Ez da nire eskaera pertsonala horregatik.

Kontuek hitzaurrea ere badute, filosofian oinarritua: Absurdoaren (des)teoria kaotikoa saioa. Mendebaldeko kulturetan, goi-mailan ere, filosofia sakralizatu du logika. Liburuan diodenez, Aristotelesen libururik ezagunena *Metafisika* omen da, fisikaz harantzago teoria. Baina egiazki, Aristotelesen ondore guztia, pentsaera baldintzatu duena ez da *Metafisika*, *Organon* baizik. Logikaz ari da. Hori onartu izan zen geroago, Kantek errepikatu zuen, eta egun metafisika mota guztietan onartuta dago, baita dialektika mota guztietan ere. Horregatik, Kosmosaren eta fisikako arau nagusien aurrean –pentsamendu nagusiaren arauak– absurduaren bilakaeraren eta aldaketaren ikuspegia ipintzeak badu esanahia. Gero eta gehiago gainera. Izan ere, fisikaren arauak aldatzen ari dira. Orain, genesi berri bat aurkezten ari zaigu, ez dator logikatik baina logikaren bidez ikusten saiatzen gara.

Albert Camus ere hizpide duzu, besteak beste. Camusek absurdismoaren teoria landu zuen, baina bere teoria existentzialista da, eta absurdua erabiltzen du logikak ez duela zentzurik esateko. Dena absurdua dela zioen eta horrek etsipena ekarri zion. Nik ordea, absurduaren des(teoria) egin dut, absurdua desegiten dut, absurduak ez baitu teoria izaterik.



“Aristotelesen libururik ezagunena *Metafisika* omen da, fisikatik harantzagoko teoria. Baina egiazki, Aristotelesen ondore guztia, pentsaera baldintzatu duena ez da *Metafisika*, *Organon* baizik”.

Horregatik kaotikoa! Bizitza *totun revolutun* izaki, zure literatura ere horren ondorioa ote?

Literatura bizitzaren parte bat da, denok dugu zerikusirik. Idazle ez dena irakurlea da, eta irakurlea eta idazlea ez dena, nolabait, beste komunikabideen bitartez, nolabaiteko lotura badu literaturarekin. Gizarteak bere adierazpenak egiteko behar duen bide bat da literatura. Askotan literaturaren adierazpenik apalenak esatera zaharrak edota txisteak dira, horiek ere erabiltzen dira norberaren pentsamendua taxutzeko. Literatura bizitza da, eta hori *totun revolutun* horretan azaltzen da. Ikasten edota eskas dituzun horiek dira. Funtsen, zure nahiak adierazteko bitartekoa edo modua da literatura.

Filosofoa ez ote zaio gailentzen literatur egileari zure kasuan?

Saiatu naiz filosofia gehiegi ez sartzen. Garai batean irakurle askotxo izan nuen, aipatutako trilogiaren irakurleak, eta horietako batzuek esaten zidaten filosofia sartzea astuna egiten zitzaizela. Orduan, hemen, *Absurduaren (des)teoria kaotikoa* alde hori laburbiltzen saiatu naiz, ipuinetan ere azaltzen da zeharka. Egia da, batzuetan maisu kutsuaren adierazpenak egitea saihestu nahi duzun arren, ezin diozu ihes egin, eta hori akatsa da.

Literaturak laguntzen gaitu bizitzen?

Bizimoduak ez gaitu asebetetzen, badaukagu etsipenak, baina literatura ere ez da asegarria. Literatura nahitaezko premia baten adierazpena da. ■




Xabier Lete gogoan, egunsentiari kantuan

Urriaren 5ean Donostiako Victoria Eugenia antzokian taularatuko dute *Egunsentiaren kantak* ikuskizuna. Pier Paul Berzaitzek eta Joxe Angel Arbelaitzek Ipar eta Hego Euskal Herriko abeslariak batu ditzute, Xabier Leteren *Egunsentiaren Esku Izoztuak* (Pamiela, 2008, Euskadi Saria 2009), liburuko zenbait poema musikatzeko. Pier Paul Berzaitzekin batera, Erramun Martikorena, Estitxu Pinatxo, Magali Zubillaga eta Joxan Goikoetxea bildu dira ikuskizun honetan. Euskal kantutegia gaurkotzea dute helburu.

MYRIAM GARZIA

PARISETIK bueltan harrapatu ditugu Pier Paul Berzaitz eta Joxe Angel Arbelaitz. Bertan aurkeztu dute *Egunsentiaren kantak* ikuskizuna. Ikuskizun honen lehen urratsak duela urtebete eman ziren. Arbelaitzek azaldu digunez, “Pier Paulekin hitz egin nuen, disko berria egiteko asmorik ba ote zuen. Berak esan zidan bakar-kako diskoa egiteko ez zuela nahiko indarrik,

taldean eta modu kolektiboan kantatzea nahi zuela” Xabier Leteren omenezko ikuskizunean zein *Sortuko dira besteak* ikuskizunean parte hartu zuen Berzaitzek eta esperientzia hori aintzakotzat hartuta, bi gizonezko eta bi emakumezko osatuko luketen laukotea nahi zuen Berzaitzek. Joxan Goikoetxearekin hitz egin eta gero, “Erramun Martikorenaren etxe-



ra joan ginen. Baserrian hartu gintuen eta Pier Paulek taldean nahiko lukeela, lankide nahi zuela esan zion”. Martikorenaren onespina jaso eta gero, Berzaitzi Magali Zubillaga baxenafar gaztea proposatu zuen, eta Estitxu Pinatxo nafarra, Goikoetxeak. Hola osatu zen laukote abeslaria.

Errepertorioa prestatzen hasi ziren. Pier Paul Berzaitzen kantu ezagun batzuek eta sortu dituen berri batzuek osatzen dute *Egungentziaren kantak* ikuskizuna. Leteren azken poemarioa, *Egungentziaren Esku Ixoztuak* dute oinarri Berzaitzen kantu berriek. “Adibidez, Pier Paulek sortu berri duen *Leteren Eternitate* poema, blues estilora egokitu du Joxan Goikoetxeak, eta Estitxuk kantatu, denak liluratuta uzteko moduan. Martikorenak bere errepertorioko kanta batzuk sartu ditu, bere betiko estiloan, ez dugu nahi izan Erramunen kantatzeko era hautsi edota moztu” dio Arbelaitzek.

Leterekin solasean

Bi orduko ikuskizuna prestatu dute, banaka, binaka eta taldeka abestuz. Diskoa grabatzeko asmoa ere badute, *Egungentziaren kantak* ikuskizuna oinarritzat hartuta. “Normalean alderantziz egin ohi da, lehendabizi diskoa grabatu eta gero aurkezpenak egin. Baina ikusita Hernanin eman genuen aurrezpen arrakastatsua, aurrera egin dugu. Talde egonkorra izatea nahiko genuke, betiko kantak eginez, baina soinu berriarekin nahastu. Estitxu eta Magaliren emakume ahotsak ere, beste ukitu bat ematen diote. Badira taula gainean urte askotako esperientzia duten abeslariak baina badira gazteak ere” dio Arbelaitzek.

Pier Paul Berzaitzengana jo dugu *Egungentziaren kanta* hauen gainean gehiago jakiteko

“Tradizioa eta berrikuntza nahastea izan da betidanik nire asmoa. Tradizioa ez baita ulertzen modernitaterik gabe”

Joxean Goikoetxea

“Ipar eta Hegoko kantariak eta musikariak bildu gara, honek ere hainbat kolorez jantzi du ikuskizuna”

Pier Paul Berzaitz

asmoz. Ipar eta Hego Euskal Herriko kantak dira, zazpi lurraldeetako musikariak biltzen baitira ikuskizun honetan, beti ere euskal kantutegi tradizionala eguneratuz, gure tradizioa gaurkotuz. Garrantzitsua dela uste du Berzaitzek euskal kantutegi zaharra garaikide

izatea, gure tradizioak iraun dezan, berritu dadin. Joxan Goikoetxearen lana funtsezkoa izan da honi dago-kionez. “Gure helburua kalitazteko musika egitea da, Leteren poesiak bide ematen baitigu. Bestetik, tradizioa eta berrikuntza nahastea izan da betidanik nire asmoa. Tradizioa ez baita ulertzen modernitaterik gabe, berrikuntza beharrezkoa da, bai gure herrian, bai kantagintzan ere. Nahastu beharra daukagu, gauza berriak asmatu”.

Leterekin izandako azken solasak ditu gogoan Berzaitzek. Letek berak eskatu omen zion *Egungentziaren Esku Ixoztuak* (Pamiela, 2008) musikatu zezan. “Poema liburua argitaratu zuenean aipatu zidan hori. Hortik dator *Egungentziaren kantak*, berak idatzitako azken poema hauetatik askok abiapuntu hori daukatelako. Ikuskizunarekin martxa hartu dugunean, ezinbestean, bera eta bere poemak presente egotea nahi izan dugu” adierazi digu Berzaitzek.

Tradizioak eta garaikidetasunak bat egiten dute, baita Ipar eta Hego Euskal Herrian kantatzeko manerek ere. “Abesti berriak eta zaharrak nahastuz, kontzertu klasiko bat egin nahi izan dugu. Alde batetik, abesti berriak daude, baina bestetik, bakoitzaren errepertorioko abestiak sartu ditugu. Erramun, Estitxu edota Magaliren errepertoriotik hartu ditugu zenbait abesti. Aspaldiko adiskideak gara. Bestetik, Joxan Goikoetxea talentu handiko musikaria da, esperientzia handia du eta dagokien tokia eman die garaikideari eta tradizioari. Eszenatokian, abeslari gazteak eta esperientzia handikoak daude, eta bakoitzaren abesteko moduari kolore berezitua ematen asmatu dela dirudi. Ipar eta Hegoko kantariak eta musikariak bildu gara, honek ere hainbat kolorez jantzi du ikuskizuna”, Berzaitzen aburuz.

Euskal Herriko aretoetan aurkezpenak egiteko asmoa dute eta, esan bezala, aurrera begira diskoa grabatzekoa. “Diskoa guretzat gauza garrantzitsua da, nahiz eta musika industria egoera makalean egon. Disko ona egin nahi genuke, hitz bikainak oinarri hartuta, musika ederra eta giro onean sortu, pop-folk ukituarekin”. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com



Haur eta Gazte Literatura | ITZULPENEA

Hartza ehizatzena goaz
Michael Rosen

(Berridazketa) Irudiak: Helen Oxenbury.
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni.
Pamiela-Kalandraka, 2013

Hartzaren atzetik eta aurretik

LIBURU honen azalak berak irakurlearen arreta erakartzen du: *Hartza ehizatzena goaz*; alegia, hartz bat harrapatu behar dugu! Eta azal biak (aurreko eta atzeko azalak) hartzen dituen irudian, aita seme-alabekin eta txakurrarekin ageri da, pozik, jolasean, zelai batean saltoka. Hartza ehizatzena goaz eta ez gara beldur, jolastera goaz, ikusiko duzue, hartz bat harrapatuko dugu!

Michael Rosenek haur abesti ezaguna moldatu eta liburu hau idatzi zuen, eta Helen Oxenburyk, kontakizunaren tonua eta estiloarekin bat eginez, ilustrazioak egin zituen. Hauetan, irudietan, kolorezkoak eta zuri-beltzekoak tartekatzen direla ikusiko dugu; eta koloreen aukeraketa ere liburuaren erritmoarekin erlazionaturik dugu: eragozpen, zailtasun, traba bat agertzen denean mugimendu eza edo geldoa ikusiko dugu, irudia zuri-beltzean... zailtasun horren irtenbidea berri, hurrengo orrian ageriko zaigu koloretan, familiako kideak aurrera egiten, hartz harrapatze bidean. Jolas horrek, eragozpenak gaingitzea, hartzaren kobazulora iritsi arte irauten du, iritsi artekoa dugu; han “ZER DA HORI?” galderaren ondotik egoera guztiz bestelakoa bilakatzen delako. “Sudur heze distiratsu bat! Belarri handi iletsu bat! Begi handi harritu bi! HARTZA DA HORI!!!”, eta ordura arte jolasa zena ihesaldi lasterra bihurtzen da eta bat-batean sei eszena ageriko zaizkigu kobazulotik irten, elur-ekaitzean korrika, basoan barrena... eta hurrengo orrietan lau eszena, etxean sartzen, etxe barruan ezkututzen; azken bi orriak hartzen dituen

irudi bakarrarekin amaitzeko. Hots, irudien bidez gertakarien erritmo bizi eta egoeraren larritasuna islatu nahi eta ederki lortu delarik.

Albumean zehar egitura errepikakorra ageri zai-gula aipatu dugu irudien estiloaz hitz egitean, eta horixe da hain zuzen irakurlea harrapatzeko modu sinple eta lortua. Familia irribarretsua paseora atera da txakurrarekin, “Hartza ehizatzena goaz. Hartz bat harrapatzeko irrikaz. Hau egun ederra! Ez goaz ikaraz.”, eta ibilaldi horretan belar altuarekin, ibai hotz sakonarekin, lokatz trinko hezearekin eta abarrek egingo dute topo; baina eragozpen bakoitzari irtenbidea bilatu eta aurrera egingo dute ziztizazta belardian, plisti-plasta uretan, zirrun-zarrun lokatzetan... eta tipi-tapa kobazulo barruan. Baina hartzarekin topo egitean atzekoz aurrera egin beharko dute tipi-tapatik zisti-zastara, kobazulotik belardira, eta belarditik etxera.

Etxean, baina “O, ez! Atea ixtea ahaztu zaigu” esatean agertzen zaigu albumeko unerik larrienetarikoa, hartz etxerantz datorrela, atea zabalik eta eskaileretatik behera atea azken unean ixten dutelarik.

Hartza ehizatzena goaz gozatzeko liburu da, une lasaien ondoren, familiarekin zelai, ibai, baso eta mendietan zehar ibili eta gero, kobazuloko larritasunaz ikaratzeko eta amaiera xelebrearen kausaz irribarrea gureganatzeko. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Hitz gezidunak

MARGUL ENBOR SENDO	ANTZINAKO MILIZIAKO KIDE INFORMAZIO UNITATE	ZEREGINA	 DANI BLANCO		UGARL JORITASUNEZ HAGA	IZPI, PUSKA LOAK HARTU	LASTO BIHURTU BARNETIKO
HITANOA ELIKATZEN					PERTSONAIA- REN ABIZENA ZUHAITZ MOTA		
			1501 PERTSONAIA- REN IZENA	ORBANAK DITUENA ONDORIO			
IODOA ALOR, LUR SAIL	IRAINA, DESOHOREA LABANA, AIZTO		URDAIAZ- PIKO OLIBAREN ZUKUA (PL)		GIPUZKOAKO MENDIA BIZIMODU ASZETIKOA DUENA		INTERJEK- ZIOA NAFARROA- KO HERRIA
HAU BEZALAKO	HERRESTAN DOAN ONTZI DESIRA ADIERAZTE- KO HITZA		JOSTATU AHUL, ARGAL		IBAI GAINE- KO PASABIDE KIROL- LEHIAKETA		OGIDUN
HAMAICA ... BALDATO, TXIRRIN- DULARI ITALIARRA		IRARTZEN DUENA GAROA, IRA- TZEA		ABIZENAK MODU ATZIZKIA		AURRIZKI EKOLOGISTA GOGO BIZIA, IRRIKA	
NAFARROA- KO HERRIA LURPEKO HILOBIA				JAKI GAZITUA BYTE			
					NONBAIT		

Kike Amonarrizen umorea

Lehen eguneko bisita

Mutil laguna etxera dakarren lehen eguna du Mikelek. Ama urduri dago eta aita ez oso umore oneko. Txirrina jo dutenean, Mikelek berak zabaldu du atea. Manu da. Agurtu, musu bat eman eta orduantxe ohartu da Manu txakurrarekin etorri dela:

- Non utzia ez neukan eta txakurra ekarri behar izan dut.
- Lasai, ez da ezer gerta-

tzen –erantzun dio Mikelek.

Ohiko aurkezpenak egin eta mahaira eseri orduko, aitak, jenio txarrez:

– Atera ezazue txakur hori etxetik, arkakusoz beteta dago eta!

Eta Manuk txakurrari:

– Risky, zoaz balkoira, etxea arkakusoz beteta dago eta!



Soluzioa

L	B	A	S	T	A	T	U	I	K	O	I	N	O
P	I	B	A	S	T	A	T	U	I	K	O	I	N
J	O	R	I	K	A	R	N	O	S	T	A	T	U
S	O	R	I	K	A	R	N	O	S	T	A	T	U
			M	O	A	G	A	R	N	O	S	T	U
M	I	L	A	I	N	O	S	T	A	T	U	I	K
Z	B	I	L	A	I	N	O	S	T	A	T	U	I
S	H	I	K	A	R	N	O	S	T	A	T	U	I
J	A	T	E	N	O	S	T	A	T	U	I	K	O
E	L	A	I	N	O	S	T	A	T	U	I	K	O
H	O	N	E	L	A	I	N	O	S	T	A	T	U
F	A	B	I	O	D	E	I	G	A	R	N	O	S
K	A	T	A	K	O	N	B	A					

*Itzala*

Tragedia eta komediaren artean

NOR, istorio honetako protagonista, kaleko edozein pertsona izan daiteke. Bere emaztearengandik bananduta bizi da, bakarrik, etxe xume batean. Nor deitzen diogu, baina izatez Nor ez da inor. Ez du ezer inportanterik egin: ikasketak utzi zituen eta gaur egun taberna batean lan egiten du, bizitzeko lain ematen ez dion soldata baten truke. Hain da inor ez, izenik ere ez baitioguz jarri.

Ezustean baina, Nork bisita berezia hartuko du: bera bezala, baina beltzez jantzita dagoen pertsona bat agertuko zaio. Berehala konturatuko da, ordea, bere itzalaren itxura hartzen duen pertsonaia berezi hori, Herioa dela eta bere bila datorrela.

Hau da, Kabia antzerki taldearen *Itzala* antzezlanak kontatzen digun istorioa.

Jokin Oregik –testuaren egilea– bi ipuin izan ditu abiapuntu istorio hau idazteko. Alde batetik, Joseba Sarrionandiak idatzitako *Itzalorekin solasa* ipuin laburra. Bertan, ipuinaren egilearen eta bere itzalaren arteko elkarrizketa surrealista eta poetikoa irakurri dezakegu. Beste alde

Estreinaldia: Irailaren 14an izan zen, Bilboko La Fundicion aretoan. **Obra:** *Itzala*. **Antzerki taldea:** Kabia. **Aktoreak:** Florentino Badiola eta Joseba Uribarri. **Argiak:** Javier Garcia (Kandela Argiztapena). **Soinua:** Edu Zallio. **Ekoizpena:** Kabia. **Zuzendaritza:** Borja Ruiz.

batetik, Bernardo Atxagaren *Bagdadeko morroia*. Bertan Bagdadeko morroi batek herioak mehatxuzko keinua egiten diola ikusten du. Bel-durrak jota morroia ihesean doa, azkenean Ispahanera heltzen den arte. Han, ordea, herioa aurkituko du berriro. Bukaeran jakingo dugunez, herioaren hasierako keinua ez zen mehatxuzkoa, harridurazkoa baizik, heriotzak bazekielako gau horretan bertan morroia eraman behar zuela, baina Bagdadetik urrun, Ispahanen.

Kabia antzerki taldea 2006an sortu zen, Gaitzerdi antzerki taldearen teatro ikerketarako gela edota laborategi gisa. Halare, harreman estua dago antzerki talde bien artean. Horren adibide dugu, *Itzala*-ko pertsonaia Gaitzerdik Sarrionandiaren imaginarioan oinarritutako “Euria esan eta euria erortzea” antzezlanean agertzen zela, Kabia-*ren Itzala* honen aurretik.

Kabiaren antzezlan berri hau tragedia eta komediaren artean murgiltzen da, hain da tragikoa gure protagonistaren patua, publikoaren artean barrea eragiten duela, hasiera batean. Apurka-apurka, antzezlan iluntzen doa, soka gero eta gehiago tenkatzen da. Ezsenan, elementu gutxi badira ere –sofa, esekilekua eta mahaitxo bat telefono batekin–, Florentino Badiolak eta Joseba Uribarrik ezin hobeto betetzen dute espazioa. Oso testu teatrala idatzi du Oregik, bakarrikizketa, pertsonaia bere itzalarekin hitz egiten badu ere, itzalak ez baitu hitz erdirik egiten. Formato txikiko obra, pertsonaiekiko gertutasuna handia da, publikoarekiko solasa ere nabariagoa. Herioa eta bere hatsa hurbiletik ezagutu nahi dutenentzat. ■

**Myriam
Garzia**



Marranta ote da, edo urte sasoiko alergia?

DOMINISTIKUAK, eztul lehorra, buruko mina... Marranta da ustez, baina sintomak ez badira desagertzen, agian beste zerbait pentsatu behar da: alergia ote da?

Alergiak udaberriarekin lotu ohi dira, udazkenarekin baino gehiago. Hala ere, alergia kasuak berdin-berdin agertzen dira urte sasoi honetan eta uda aurretik, bi garaietan polena edo lore-hautsa libre baitabil inguruko airean. Udazkenean anbrosiatik dator batez ere polena, landare bakar batek milioika ale aireratzen dituelako. Horri arboletatik erortako hostoak gehitu behar zaizkie: hezetasunak lizuna sortzen du, eta giro horretan alergia kasuak ikaragarri ugartzen dira.

Nola babestu

Medikuak agindutako botikez aparte —ez ahaztu txertoak, horrelakorik dagoen kasuetan—, badira sintomak arintzen lagunduko dizuten zenbait aholku eta har ditzaitezun neurri batzuk:

- **Ateak eta leihoak itxita** eduki, lore-hautsa etxe barruraino sar ez dadin.

- **Dutxatu zaitez** etxera iristean, edo ohera sartu aurretik, ilean edo azalean lore-hautsik gabe oheratzeko.

- **Zaindu dieta.** Badira sintoma alergikoak larriagotzen dituzten elikagaiak (arrautzak, txokolatea, alkohola, gazta onduak, txarkuteria...), baita sintoma horiek arintzen dituzten janari-edariak ere: karote-



WWW.AROMATERAPIA.BER

noideak edo laranja koloreko pigmentuak dituztenak (kalabaza edo azenarioak, esaterako), eta kertzitina dutenak (tipulak, mahats beltzak, tea eta abar).

Hotzeria modu naturalean arintzeko

Urte sasoi honetan katarroak oso erraz harrapatzen dira eta ez da ezinbestean botikara jo behar erremedio bila. Atsedean hartzea oso garrantzitsua da, gure gorputzak bere indar guztia sendatzean jar dezan. Hona jarraian botikek adina balio duten aholku sinple batzuk:

- **Jan beharra daukazu.** Kata-

rroak irauten duen bitartean ez baduzu behar adina kaloria ahoratzen, gorputzari gehiago kostako zaio birusen kontra borrokatzea.

- **Oilasko-salda egunero...** Anti-inflamatorio bikaina da, eta gorputz barruan pilatutako mukia modu naturalean desegin eta kanporatzen du.

- **... baina ez beroegia.** Elikagai beroegiek lehendik ere minberatua dagoen ezta-rria mintzen dute.

- **A eta C bitamina gehiago.** C bitaminak (piper gorria, kiwia...) prozesua laburtzen du; A bitaminak (berdela, gibela, esnea), berriz, konplikazioak uxatzen ditu.

- **Hidratazio handia.** Ura, zukuak eta infusioak —jengibre, menda eta antze-koekin eginak— hartzea komeni zaizu kongestioa arintzeko, baita muskulueta-

ko minen kontra ere.

- **Serum fisiologikoa** sudur-hobiak garbitzeko. Horrela ez dira lehortuko, eta mukia diluituz eta arinduz joango da.

- **Egin lurrunak** arnasbideak irekitzeko. Horretarako, onena ur beroari eukaliptoaren esentzia-olio pixka bat gehitzea izaten da.

- **Zapi bustiek,** kopeta gainean edo eskumuturren barrualdetik jarrita sukarra zertxobait jaisten laguntzen dute.

- **Tipula gaueko eztula lasaitzeko.** Jar ezazu mesanotxean, zuregandik gertu. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Lizar zatuka

KITAMERIENDASA, *Crocus nudiflorus*, ez da atzokoa, eta badu zer erakutsia. Lurpeko erraboilak, iaz metatutako jakiari esker, lur gainean arrabete azaltzen den lore ubela emango du. Gero, lorea ihartu ahala, hostoak azalduko dira eta, fotosintesia dela medio, lurpekoa hornituko dute. Etengabeko gerra bat da natura, orde. Belarjaleen hortz ugari dabil, kisk eta kosk, lore eta hosto gose. Loreak bere eme aieka lurpean du; behin ernalduta, haziak heltzen ari den eran, lorearen txortenean barrena gorantz egiten du, eta hosto berde artean agertzen da. Hosto eta hazi, belarzaleen aho sabaia ren gozagarri eder izango dira. Zezenak behorrak ahariak kosk eta hazia orduan bai ondu! Barrunbeko azidoetan azala beratuko zaio eta gero pekotxan, simaur dosi egokiarekin, edonon ereingo dute.

Hurrei merienda kendu eta goiz etxeratzeko garaiarekin, aziendentzat udako bazka onen amaia ere badakar kitameriendasek. Zergatik Lezaunen *engañapastores* deitzen dute? Agian, azkarregi bukatu nahi du uda, oraindik jatenak izan eta bera, temoso, esanez bezala amaiera gainean dela...

Lehengo astean, Zeraingo Jon artzainak eta bere artaldeak udako etxe duten Aralarko Beaskinen izana naiz, sukaldari batzuekin mendi goiko gaztaren aho sabai



JAKOBA ERREKONDO

erakargarri horien arrazoiak ezagutzeko asमतan. Mila metrotik gorako belazeak bereziak dira: han biziz zaildu diren landare nahasketa bitxiak dituzte. Hosto, azal, lore, fruitu, hazi... usain dasta zapore eta kutsu guztiak kontzentratuagoak. Horiek bazkatzen dituzten ardien esnea berezia, eta esne horri etekina ateratzen dakien artzain gaztagileak ondo gazta borobila egingo du.

Jatenak gaztan antzeman ote daitezkeen ari ginela, hor doa artzaina artaldeari merienda ematera. Aizkora gerrikoan, borda aldameneko lizarrera (*Fraxinus excelsior*) igo eta, kiski-kaska, hostoz jantzitako adarrak epaitzen hasi da. Arba sorta bizkarrean dakar eta hurbiltzen ikusi ordurako ardiak



J.E.

gerturatu dira. Bazkaren honelako aberastasuna gaztan igarri behar... Nahikoa larre balego, adar sorta, azao edo maltzo horiek lehortzen utzi eta belar ondua bezala ganbararatu lirateke, negurako. Abuztu amaian eta irail hasieran egiten dute lan hori Labaien, Eratsun eta inguru horietan. Han sortari zatuka edo xatuka deitzen diote. Oderitzen berriz harmena. ■



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago,
handitzen, berritzen eta gizarte
eta ingurumenarekin
konprometituta.

www.goizper.com Tel. 943 786 000




Memorizatzailleak, pirata eta kortsario

MADRIL, 1635. Calderón de la Barca idazlearen *La vida es sueño* antzezlan ezaguna estreinatu zen. Lehen emanaldien arrakasta medio, hurrengo urtean, 1636an, obraren lehen bi edizio inprimatuak merkaturatu ziren. Baina ordurako antzezlanaren eskuz idatziriko hainbat kopia pirata kalean zeuden. Kopia horiek memorizatzailleak idazten zituzten, beste bizibiderik ezean antzezlanetara behin eta berriro joan, obraren ahalik eta bertsio osoena jaso eta kopiak kalean saldu ohi zituzten lizentziadunek. Eta jatorrizko bertsioak liburugileengana iritsi baino lehen salgai izatea lortzen bazuten, merkatu beltzeko salmentek nabarmen egiten zuten hobera.

Calderón ez zen pirateriaren biktima bakarra izan; beste antzerkigile batzuk ere, Molière edo Lope de Vega esaterako, kexu izan ziren memorizatzailleen lanaz. Lope de Vegaren hitzetan: “Nire lanak kopiatzen badituzte, gutxienez ondo kopia ditzatela”. Izan ere, ohikoa zen kopiak oso kalitate txarrekoak izatea. Esaterako, *La vida es sueño* 3.000 bertsio inguruk osatzen dute, eta iritsi zaizkigun faltsifikazio onenak bertsioen erdia besterik ez ditu, 1.500 inguru; kaxkarrenak, 100 baino ez.

Baina memorizatzailleen izurria ez zen berria; aitzitik, antzerkia bezain zaharra dela esan genezake. Antzina-ko Grezian memorizatzaille bikainak izan ziren, antzezlanen emanaldiak urriagoak ziren garaian, ehunka bertsio gogoan jasotzeko gai baitziren. Gutxitan transkribatzen zituzten antzezlanak; gehienetan memorian gordetzen zituzten, gero kaleetan errezitatzen. Egia da jarduera horren erruz egileari ikuslegoaren zati bat kentzen ziotela, baina obrak antzeztokietara joateko aukerarik ez zuten herritarrengana helarazteko bide bat ere bazen.

Piraten artean egilearen edo jabearen baimena zuten kortsarioak ere baziren. Haien lana funtsezkoa izan zen, adibidez, Korana gordetzeko.



Pedro Calderón de la Barcaren *La vida es sueño* antzezlanaren lehen edizio inprimatua, 1636koa, antzezlan estreinatu eta hurrengo urtekoa. Ordurako, ordea, antzezlanaren hainbat kopia pirata salgai zeuden kalean.

Hasieran, Mahomak ahoz azaldu zien bere jarraitzaileei musulmanen liburu sakratua izango zena. Baina bera hil ondoren Koranaren edukiak gal zitezkeela jakitun, hainbat memorizatzaille aukeratu zituen sura guztiak buruz ikas zituzten eta Koranaren eskribau ofizial izan zitezen. Muad ibn Chabal, Ubayy ibn Kab eta Zayd ibn Tabit izan ziren, besteak beste, Mahomak izendatutako memorizatzaille taldeko kideak. Koranaren aginduak palmera hostoetan, harrietan edo gabeluen omplatoetan idatzi ohi zituzten. 633. urtean, Agrabako guduan, Mahomaren ia memorizatzaille guztiak hil ziren. Orduan, Abu Bakr kalifak gudutik bizirik irtetea lortu zuten memorizatzaille apurrak bildu zituen eta, Zayd ibn Tabiten ardurapean, Koranaren sura guztiak liburu bakarrean idatziz jasotzeko agindua eman zuen, betiko gal ez zitezkeen. ■



Arrastoak

Puzzleen jatorri didaktiko eta garestia

JOHN SPILSBURY (1739-1769) kartografo ingelesari geografia irakasteko modu berezia bururatu zitzaion 1762an. Mapa bat itsatsi zuen egurrezko ohol fin baten gainean, eta ondoren, kontu handiz eta marketeria zerra baten laguntzaz, maparen mugetako ertzak ebaki zituen, gero ikasleek herrialdeak zegokien lekuan ahokatu zituzten. Beraz, lehen puzzlea asmo didaktikoekin sortu zen, baina asmakuntzak ez zuen hasieran behar adinako zabal-kundea izan.

XIX. mendearen amaieran goi gizartean hedatu ziren lehenik, aberatsenak baitziren horiek ordaintzeko ahalmen zuten bakarrak; puzzleak egurrezkoak ziren, eta eskuz eginak. Baina XX. mendearen hasieran luxuzko salgai horiek asko merkatu ziren puzzleak egiteko kartoia erabiltzen hasi zirenean. ■



B&W PHOTOGRAPHY

«Sortu eta EAJren ituna behar dugu autogobernuaren arloan»

Bilbo, 1961. Kazetaria. Deian hasi zen lanean 1983an. Bizkaiko foru diputatua izana 21 urtez. Bertako Batzar Nagusietako lehendakari ordea da. EAJko EBBko kidea da 2012tik. Erakunde harremanetarako arduradun nagusia da alderdian. EAJren eta PSE-EEren itunaz egin dugu berba. Halere, aro berria sendoagoa izan dadin ezker abertzalearekin ituna bilatzen ei du berak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

Euskadi moderno, solidario, jasangarri eta lehiakorragoaren aldeko ituna delakoari buruz aritu aurretik, galdera bat: zer gabezia dago politikan?

Badago ulertzen ez dudan oinarriko osagai bat: ari garen esparruan zintzotasun falta sumatzen dut; diskurtso bikoitza dago, pribatua eta publikoa. Mahai baten inguruan gauza bat esaten da, eta berehala, estrategia hutsa dela medio, plan-teamendu politiko berak ulertezi-nak bihurtzen dira. “Politikoki zuzen” lar jokutzen da, nor bere esparruan ixten da. Gauzek xumea-goak izan behar dute politikan. Hasteko, esaten eta egiten duguna ulertu behar dute herritarrek.

EAJren eta PSEren ituna hizpide: beharrez lepo sinatutako ituna ote?

Jakina. Politika posiblearen artea da. Trantsizio politiko berria bizi dugu Euskadin. Gatozen egoeratik gatzoz: ezker abertzalea eskusio egoeran egon da, legez kanpo. PSE eta PP bestalde, Jaurilaritzan egotetik datoz, formula politiko arraro bat bizi ostean. EAJ berriz, lehen esperientzia oposizioan ezagutu ostetik. Eusko Legebiltzarra ez da guztiz normalizaturik, baina aukera politiko guztiak bertan daude. Azken hauteskundeak emaitzek deabruzko egoera ekarri zuten, eta aurrerantz ere egoera politiko zaila izango da, alderdi bat liderra izan edo beste bat izan. Beraz, “normaltasunera” itzuli



“PSEren eta EAJren ituna berrabiatzeko osagaia da, ekonomia globala berriz ere martxan jarriko den unean gure ekonomia pizteko gasolina”.

ostean blokeo moduko bat dago: beldur eszenikoa dago guztientzat. Ezker abertzaleak emaitza onak lortu zituen, baina egoera berrira egokitze beharra dauka. PSEk aldiz egur galanta jaso zuen, baita PPK ere. Madrilen nagusia izan arren, hemen protagonismoa galdu du. EAJk berreskuratu du lidergoa, baina denok sentitzen dugu bertigo herriaren etorkizunari aurre egiteko.

Egoera politiko honek luze joko duela esan duzu. EAJren eta PSEren ituna luzerako aliantza izan daiteke beraz.

Ez. Denbora gutxi barru lau aukera politikoen arteko aliantzak izatea normala izango da, egoera honek aliantzak areagotu ditu. Itun honek alderdi guztiak birkokatu ditu herriaren normalizazio bidean. “Urtzaro” garaian bizi gara egoera berriaren aurrean: itunak egiteko

orduan, lidergoa hartzeko unean. “Beharrez lepo sinatutako ituna ote?”, galdetu didazu. EAJk 27 legebiltzarkide ditu. Badakigu, eta iazko urriaren 21ean ere bagenekien. Ez dugu nagusikeriaz gobernatu nahi izan, batzuek dioten lez. Egoeraz kontziente gara lehen egunetik. Aurrerantzean, itunak izango dira batekin eta bestearekin, eta blokeoak... Aro berri baten hasieran gaude Euskadin, edo EAEn behintzat, eta horrek harreman normalizatuak izateko aukera ematen du. Bazen garaia! Hori da baloratu behar dena.

PSEk PPekin ituna egin zuen aurreko legealdian. Gipuzkoako foru gobernuan Bilduk PSEekin orain. Zergatik ez laurak itunean? Aro politiko berria horixe litzateke, ezta?

Noski. Halaxe gura ere. Diagnosian denok ados ginen. Akordioak behar genituen, eta denok batera hobe. Zergatik ez da lortu? Hauteskundeetan ostetik negoziazio komisioko kidea naiz EAJren izenean, beste alderdiei itunerako lau esparru ezarri genien eta ezinezkoa izan zen.

Zergatik?

Arestian aipatu dudan trantsizio egoeran gaudelako. Iazko urrian bakoitzak jarrera mugiezina zuen, baina urtera denok mugitu gara. Ezker abertzalea itunen esparruan mugitzen hasi da, ezkerretik. PSE berdin. Agian EAJri eskarmentu moduko bat emateko. PSE –PP ere hasia da– mugitu da birkokatzeke, horregatik eman da akordioa. Uneon denok etorkizunari begira gaude, iaz baino lasaiago nolabait.

2015etik aurrera izango diren ardatz politikoak aztertzen ari gara alderdi guztioi. Nik bi ardatz nagusi ikusten ditut: horietako batean ezker abertzalea eta EAJ lehian daude.

Ituna lau ataletan oinarritzen da: ekonomia sustatzea, zerga erreforma, erakunde publikoak eta zerbitzu publikoak. Hainbatek lehen atalaren ahulezia nabarmendu du, funtsean, ekonomia kudeaketa ez baitago gobernu honen esku.

Bistan da, ekonomia globala da. Krisia europarra da eta gu ez gara uharte bat. Krisitik ateratzen laguntzeko lehen osagaiak exogenoak dira. Berbarako, Alemaniako hauteskundeetan emaitzek eragiten dute Europako bilakaeran, emaitzek iraul dezakete egoera. Merkelek, emaitza onak lortuz gero, bere asmo ekonomikoak apalaraziko ditu Europari begira, austeritatea gutxiagotuko du hazkundearen alde

“Denok sentitzen dugu bertigoa herriaren etorkizunari aurre egiteko orduan”

egiteko. Aldiz, galtzen badu, bere arerioek Merkel egiten ari den guztiz bestelako politika ezarri nahiko dute. Alegia, horiek guztiek gure ekonomia baldintzatzen dute, baita itun honen garapena ere. Hala ere, akordioak badu osagai garrantzitsu bat: herri honen kultura industrial ez da Ebroz haragokoa, zorionez, gure ekonomia industrian oinarritzen da.

Krisi izugarriak bizi izan ditugu eta irten gara. Ituna berrabiatzeko osagaia da, ekonomia globala berriz ere martxan jarriko den unean geure ekonomia pizteko gasolina. Ituna ona da, hasteko eta behin, egoera horri erantzuteko gaitasuna duelako.

Zerga ezarpenaren oinarriak Legebiltzarrean hitzartuko direla dio itunak. Kontraesanean bide dago oraingo ereduarekin, eskumena foru aldundien baita.

Eusko Legebiltzarrak eskumena ere badu Zerga Harmonizazioaren esparruan, alde aurretiko lege bat medio, baina egundo ez da erabili. Efektu desharmornizatzaileak ez baita egundo izan. Harmonizazioa erabili behar da desharmornizazioa dagoenean, ez alde aurretik. Lege hori ez bada orain arte erabili hiru lurralde historikoetan izan diren proiektuak lerro orokor baten barruan funtzionatu dutelako da. Bizitzako beste esparrutan bezala, honetan ere badaude totem bihurtzen diren elementu diskurtsiboak.

Ituna sinatuta, orain agian PSE horretaz baliatu daiteke. Funtsean, PSEk lurralde bakarrean (EAEn) eratu nahi baitu fiskalitatearen gaia.

Ez, inola ere. Itunaren arabera batzar nagusiak dira zerga-sistemaren markoa, PFEZ edota gainerakoak berritzen dituztenak. PSEk aurreko legealdian Legebiltzarreko hainbat elementu erabili zuen fiskalitatea zehazteko. Adibidez, erabili zituen ogasunetako datuen arteko konexioa erreforma berriaren osagai substantibo bezala. Elementu



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

ONLINE

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

www.ekainberri.com

943 86 88 11

horiek kontenplatuak dira oraingo legealdian, baina ez dira aplikatu beharrezkoak izan ez direlako. Zilegi da lurraldearen egitura aldatzea, lurralde historikoen eskumen fiskala Legebiltzarrean ere egotea, baina zilegi izanik ere, aldatu nahi duenak legeen markoan egin beharko du, baina ez Lurralde Historikoen Legea aldatuz. Zergak biltzeko ahalmena lurraldeetan egon beharrean Legebiltzarrean izatea gura duenak Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarria aldatu behar du, baita Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa ere. Inork hori egiteko botoak baldin baditu, egin dezala.

Zergen oraingo erreforma zuzena eta bidezkoa izango al da denontzat?

Orain arte ez da desharmonizaziorik izan. EAEko zergak ordaintzaileek berdin ordaindu ditugu eta presio fiskala ere bera izan dugu. Itun honekin berdin. Badago aldaketa bat errenta esparruan ratio altuago-koek gehiago ordain dezaten, eta badaude kenketa zenbait berariaz zuzenduak eta mugatuak. Hitz bitan: errenta zerga sinplifikatzen da eta presio fiskala handiagoa izango da bere osotasunean. Aurreko legealdian gobernatu zutenek erreforman adabakiak ezartzea planteatu zuten. Oraingo aldaketa erabatekoa da.

Langabezia luzaz daudenentzat edota babesik gabeko sektoreentzat premiazkoak diren neurriak ez ei dira ikusten itunean.

Ulertu behar dugu eskubidea subjektiboa dela eskusio arriskuan daudenentzat, hauentzako dirulaguntzak berme errenten barruan daude. Gastuaren arabera aztertu dira euren egoera, zerga-ezarpentik kanpo daude uneon. Gainerakoa, bi dira kolektibo funtsezkoak: denbora luzeko langabetuak eta gazteak. Plan espezifikoak landu dira kolektibo hauei begira.

Bake, elkarbizitza eta normalizazioaren egoera aztergai segidan. Aipatu ituna sinatu den garaian PSEk Legebiltzarreko Bake ponentziatik alde egin du.

Ez da ulergarria. ETAk egunero bortizki jotzen zuen urteetan alder-



“Bake ponentzia bada batek gura duen guztia besteak onartzea, ez du zentzurik. Elkarbizitzarako ponentziak bere mugak eta zoru etikoa ezarriak dituen arren, hain zuzen ere ponentzia horretaz eztabaidatzeko da”.

di politiko guztiok saiatzen ginen zirrikituak bilatzen egoera harekin amaitzeko. ETAk bi urte bere jardura armatua bukatzea erabaki ondoren ez da ulergarria batzuek berba egin gura ez izatea. Gainera berba egiteari uko egitea non eta Legebiltzarrean. Ez dugu ulertzen PSEk Bake ponentziatik ihes egitea, areago beraiek eskatu baitzuten ponentzia eratzea. Paradoxikoa da gero, aurreko legealdian ponentzia egon nahi ez zuena egun berari atxikia egotea, ezker abertzalea. Areago, ezker abertzaleak urrats gehiago eman behar ditu ezinbestez, eta emango dituelakoan nago. Eta PSErena aldi bateko jarrera dela uste dut. Alegia, bi-hiru hilabete barru elkartzeko modua aurkituko dugulakoan nago.

Baikorra zara hartaz.

Konbentzituta nago. EAJ saiatuko da PSE itzularazten. Izan ere, ponentzia bada batek gura duen guztia besteak onartzea, ez du zentzurik. Bake eta elkarbizitzarako ponentziak bere mugak eta zoru etikoa ezarriak dituen arren, hain zuzen ere ponentzia horretaz eztabaidatzeko da, denok elkarri entzuteko.

Zoru etikoak geruza asko baitu izan.

Arlo horretan ere beste totem bat egin da. Zoru etikoak hainbat osagai ditu noski. Gauzatutako ponentziaren oinarriak Legebiltzarreko zenbait indarrek adostuak izan dira. EH Bilduk hasieran ez zituen onetsi, baina azkenik onartu ditu, gehien- goak onartuak izan zirenez gero. Ponentzia esparru horretan eztabaidatzea onartu du. Oinarriak hauek izaki: memoriaren berreskurapena. Kritika irekia iraganari eta elkarbizitza gauzatzeko adorea sustatzea.

Non dago hurrengo urratsa emateko koska?

Adibidez, batek “terrorismoaren biktimei sostengua” dio, eta beste batek “biolentzia ororen biktimei sostengua”. Legebiltzarrak urrats handiak eman ditu hitzen nabardurei dagokienean. Badago besterik bistan da. Giza eskubideei dagozkie oinarritzko aurre-esparru politikoa landu beharra dago. Esparru horrek etorkizuneko elkarbizitza eta bakea bermatu behar ditu. Zailtasunak izango dira ezker abertzaleak orain arteko estrategia politikomilitarraren porrota onartu behar baitu. Alabaina, hori nolabait egin



Elkarrizketa Sabino Etxean egina da. Koldo Mediavillaren atzean Bilboko Plaza Barriko arkupeak ageri dira.

du. Ezker abertzaleak Sorturen bidez lortu zuen esparru politikora itzultzea eta orain esparru guztietan gizarteratu behar du. Hau da, beraiek lortu badute politikoki birgizarteratzea presoek ere lortu dezakete. Presoek beren egoera egokitu behar dute. Baina hori ezker abertzaleak egingo du “ETAk erabilitako bortizkeria okerra izan da” esango duenean.

Bortizkeria ez du alde batek soilik erabili, beste biktimak ere badaude.

Biktimak denetarikoa daude. Legebiltzarrak onartu du badaudela motibazio politikoa duten biktimak. Terrorismoaren biktimak daude, poliziaren gehiegikerien biktimak eta bestelakoak ere, bat ere gutxietsi gabe. Elkarbizitza eraiki behar dugu biolentzia guztiek egindako mina sendatzeko, biktima guztiena, baina aitortuz biktima nagusiak terrorismoak eraginda direla. Haatik, elkarbizitza berriak denon mina leundu behar du berdin.

EAJk badu autokritika egiterik?

Noski, EAJk ere autokritika egin behar du, mundu honetan autokritikarik egiten ez duenak ez dauka errealitateari aurre egiteko gaitasunik.

Harago joanez: ezin al dira herriaren normalizazio politikoa, ekonomiaren eta subirotasunaren bideak batera urratu? Noiz emango da hori EAJn?

EAJn eman ematen da hori. Guretzat lotuta daude berez, geure-geurezkoa da hori. Autogobernua eta subiranotasuna lotuta daude ongi izatearekin. Baina nik ez dut gura herrialde independentea langabezia izugarritz eta gosez. Nik nahi dut herri bat herritarrak zerbitzu publikoak eta bizitza kalitate duinekin.

Abertzaletasunaren esparrutik hala ere, subiranotasunaren bidean urrats irmoagoak eskatzen zaio EAJri.

EAJ –ahal den neurrian– bitartekoak bilatzen eta hazkundera bermatzen ari da subiranotasunaren bidean. Bitartekoak ditugu, ezker abertzaleak berak aitortzen dituenak. Kontzertu Ekonomikoa da horietako bat. Euskal estatu zati bat da. Guk zergak bildu –dirua izatea– eta gure etorkizun ekonomikoaren zati bat gure kudeaketan oinarritua egotea, herriaren osasun finantziariaren arabera, hori subiranotasunaren bidean aritzea eta joatea da.

“EAJk ere autokritika egin behar du. Autokritikarik egiten ez duenak ez dauka errealitateari aurre egiteko gaitasunik”

EAJren eta ezker abertzalearen arteko itunak egiteko aukerarik izango al da? Sorturekin hiru bilera izan ditugu azkenaldion, laster laugarrena. Oinarrizko definizio bat zertu nahi dugu. Guk autogobernuaren ponentzia berria eraman nahi dugu Legebiltzarrera, estatutu berriaren edo egoera juridiko-politiko berriaren oinarriak finkatzeko. Bide horretan sartzeko prest dauden edo ez planteatu diogu. EAE soilik? Nafarroarekin? Zazpiak bat? Gehiago definitzea eskatu diegu aro berrian abiatzeko. Pernauto Barrenak Euskal Bidea aurkeztu berri du, ez dakigu zertan datzan. Guk oinarrizko osagarriak definitzea nahi dugu: zein da subjektu politikoa? Nola konpondu lurraldetasunaren arazoa?

Koldo Mediavillak “EAJren eta Sorturen arteko akordio posibleen balorea azpimarratu du”, irakurri dugu prentsan. Bai ote?

Izan beharko. Hiru bilera izan badugu, harremanak sendotzen ari diren seinalea da. Ezker abertzalearekin akordioaren esparrua urratu behar dugu. Izandako bileretan azterketa batzuk partekatzen ditugu, bestetzek ez. Neronek behingoz nahi nuke bereizten eta batzen gaituena “eguneroko” batean idaztea, batzen gaituen puntuan bildu ahal izateko. Besteak beste, herri honen soziologia ez baita luzaz aldatuko. Elkarrekin bizi behar dugu. Gauza al gara –posizio maximalistak baztertuz eta sintesia egin ez– puntu hori aurkitzeko. Ez dakit herri hau nork lideratuko duen datozen hamar urteetan, baina EAJk eta Sortuk itun bat egin beharko genuke autogobernuaren esparruan.

Nafarroa subjektu politikoa al da?

Guk nafarren erabakia bere esparruan errespetatzen dugu. Gainerako euskaldunekin batera proiektu nazionalean aritzea beren esku dago, beren borondateak erabakiko du. Estrapolazioa egiten badugu, EAEko euskaldunok eskubidea daukagu geurez erabakitze edo espainolek ere erabaki behar al dute? ■



NANCY H. HORNBERGER

«Bereizi egin behar dira hizkuntza, eta ahotsa, hizkuntza hartan ahotsa izatea»

AEBetako Pennsylvania Unibertsitateko irakasle doktorea da. Hizkuntza eta hezkuntza ditu ikergai kultur eta hizkuntz egoera ezberdinetan. Antropologia, linguistika, soziolinguistika eta politika ikasketak konbinatu ohi ditu lanean. Hizkuntza indigenak eta immigranteenak aztertu ditu batik bat, Peru eta Boliviako ketxuera komunitateak, Filadelfiako (AEB) kanbodiak eta puerto ricotar gizataldeak, Zeelanda Berriko maoriak, eta beste.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



“Hezkuntzak politikari baten karguak baino askoz gehiago irauten du, bide luzeago du eginkizun”.

Ketxuera, guaraniera, maoriera... aztertu dituzu. Zerk eraman zaitu hizkuntza ezberdin horiek ikertzera?

Ikuspegi etnografikoa baliatu ohi dut, oinarri antropologikoa du nire lanak. Eman dezagun zer edo zer, dena delakoa, benetan sakon aztertu nahi dudala. Horretarako, tokian tokiko testuinguru bat, lokala, aztertzen dut. Ikerketa ondo burutuz gero, tokiko jendeak bere burua zuk egina duzun ikerketarekin bat egiten baldin badu, bada, orduan, beste testuinguru batzuetara jendeak ere esperientzia irakurtzera jotzen du eta, aski xehetasunez egin baduzu lana, antzekotasunak bilatzera ere abia liteke. Beste ikerketa modurik

ere bada, jakina. Horietako zenbait, orokortzea dute helburu. Guk ez dugu orokortzen, ez dugu horretarako lanik egiten, ez dugu ikasgarrik ematen, irakurleak ateratzen ditu ondorioak, horrelakorik baldin bada. Ikuspegi etnografikoa, beraz. Bestalde, testuinguru ezberdinak aztertzeak horixe dakar, testuinguru bakoitzean gertatzen ari dena entenditzea.

“Hezkuntza elebidunak bestelako hezkuntza-sistemak irekitzen ez duen atea zabaltzen dio herritarrari, eta zapalduari, batik bat”

Vasilia haurraren ahotsa

“Quintachatan nintzen. Vasilak zazpi urte zituen orduan. Asko interesatzen zitzaidan Vasiliaren eskolako gela hura, irakaslea benetan irakaskuntza elebiduna egiten ari zen-eta. Oso irakasle ona zen, bestalde. Eta hantxe, gainerako ikasleen artean, neska hura, Vasilia. Isila zen, oso. Gainerakoak ere isilak ziren, baina ez Vasilia bezainbat. Bosgarren mailan zuen anaia, Justo. Etnografia lana egiten ari zarenean, beti da baten bat berehala lagun egiten duzuna. Nik Justo izan nuen lagun hori. Atsegina, alaia, jatorra... Eta, behin, etxera eraman nahi izan ninduen. Eta hantxe ikusi nuen Vasilia, ketxueraz hitz egin eta hitz egin. Harri eta zur utzi ninduen. Gelan batere hitz egiten ez zuen neska txikia, etxean isiltzen ez zena! Eskutik hartu eta sorora eraman ninduen, eta landare guztien izenak esan zizkidan ketxueraz. Ordurako ikasita nengoen ketxuera, eta Vasiliarekin hitz egin ahal izan nuen. Harrezkerro, gogoan daramat Vasilia. Zer ote zen berarentzat eskola? Etxean ahotsa zuen, eskolan ez. Uste dut gela barruan behin ere ez niola hitzik aditu”.

Eta bata bestearekin alderatu?

Ondoren konparazioak egitea ez da harrigarria. Horretan ari gara beti gure bizitzan, konparazioak egiten, mundua entenditu nahian. Dena dela, ez ezazu uste: guaraniera, maoriera eta gainerakoak aztertzen hasi baino lehen, hogeitaka urte egin nituen Andean askotariko lanak egiten. Han ari nintzela, behin gonbita jaso nuen beste zenbait lekutako esperientzien berri eman nezan. Beraiek hots egin zidaten. Hizkuntza indigena baten aldeko ekintzaileak edo mugimendua dagoen leku guztietan, beste zenbait tokitako esperientzien berri entzuteko irrikan ikusi dut jendea, liluratuta daude ikusirik ez direla bakarrik ari borroka horretan, bere hizkuntza azpiratua indartzeko eta zabaltzeko lanean.

Hizkuntza komunitate batean egiten dutena transferigarri da beste erreallitate batera?

Ez dago kopianerik, baina bai estrategia, esperientzia, ideia... berdinak, edo berdintsuak, baliatzea. Hezkuntza elebidunaren kako handietako bat duzu hori, adibidez. Arlo horretan ari ez den jendea —baita horretan ari den asko ere!, kar, kar, kar...— eredurik onenaren bila ari da, han eta hemen ibili ohi dira bila: “Zerk funtzionatzen du? Gurera eraman nahi dugul!” Nire erantzuna, beti, bat da: kasu bako-

tza tokian tokiko mailan entenditu eta garatu behar da, ez dago besterik. Nik aztertu ditudan irakaskuntza elebidunaren prozesuetan horixe ikusi dut, hau da, denek ere zenbait gidalerro eskaintzen dituztela, tokiko testuinguruan ari diren irakasle, ikertzaile eta politikariek baliatzeko modukoak izan litezkeenak beren tokiko elebitasuna garatzeko bidean. Uste dut posible dela printzipio batzuk izatea, orokortzeko modukoak, baina ezinezkoa da eredu jakin bat inportatzea.

Zertan dira dena delako hizkuntzaren aldeko estrategia diseinatzen duten politikariak?

Komunitateetako hizkuntzak biziberritzeko lanean ari direnen eta politikarien arteko harremana... Nola esan? Benetako erronka iruditzen zait, gero eta kontzienteago naiz horretaz eta, bestalde, ez dakit nola konpon litekeen ere. Esaterako, bada politikaririk guaranieraren egoerak —adibidez ari naiz, guaraniera hizpide hartuta— kezkatuta bizi denik. Delako politikaria zortzi bat urtez egongo da agintean eta urteok igarota, askotan, guztiz kontrako joera duen politikaria etorriko da, guaranieraren egoerari aurrekoak ez bezala erantzungo diona. Baina hezkuntzak politikari baten karguak baino askoz gehiago irauten du, bide luzeago du eginkizun. Inolako hezkuntza erreforma baten emaitzak ikusteko, belaunaldi bat osoa behar duzu, gutxienik. Neska-mutilak hezkuntza-sistema osatzen ikusi behar dituzu, emaitzarik izatekotan...


Egoera horiek ezagutu al dituzu?

Bolivian, Perun, Ekuadorren, non luzean jardun bainaiz lanean, horixe ikusi dut gertatzen: hezkuntza-sistema elebidunaren aldeko benetako mugimendu intentsu eta indartsua —hamar urtean ere iraun izan duen olatua, nahi baduzu—, eta ondoren politikari berri batek hartzen duela iragitea, ordu arte egindako dena galtzen duzu. Tira, inoiz ez duzu dena galtzen, baina asko galtzen duzu. Bestalde, nik lanean ez dut politika diseinatzen dutenekin hitz egiten. Egia esan, ez dut uste hezkuntza elebidunari buruzko eran-

tzun zuzenik ematen dutenik. Hamarkadak daramatzat arlo honetan lanean, eta bateko, politika diseinatzaileak hezkuntza elebiduna izendatzen duena, askotan –indikatzailerak eta kopuruak eskuan hartuta–, ez da elebiduna. Aldiz, besteko, politikariak hezkuntza elebiduna ez dela dioen tokian, gertatu izan zaigu hezkuntza benetan elebiduna izatea. Egiatzoko dilema da, eta barkatu, baina ez daukat erantzun ziurrik.

**Zeelanda Berrira heldu berri, maorie-
ra irakasten zen eskolara sartu eta
laster galdetu zizuten: "Zer iritzi duzu
hezkuntza elebidunari buruz?"**

Hezkuntza elebidunaren aldeko itsua naiz, eta horretan naiz oraindik, lau hamarkada horretan lanean jardun eta gero ere. Artikulu bat dut idatzia, "Hamar ziurtasun hezkuntza elebidunaren inguruan". Hezkuntza elebidunak bestelako hezkuntza-sistemak irekitzen ez duen atea zabaltzen du, zabaltzen dio herritarrari, jende zapalduari, batik



bat; beren gizartetik hizkuntzagatik baztertuta dagoen jendeari. Jakina, hizkuntzarekin batera, askotan, etnikotasuna, arrazakeria, txirotasuna, gizarte mailak eta beste hainbat auzi datoz. Hala ere, ni hizkuntzaren bitartez sartu naiz mundu horretara, eta ez debaldetan, hizkuntza ez baita bakarrik ahots espresioa, nortasunaren adierazgarri baizik, eta gure ikasketak haragitze bitartekoa.

**Zeelanda Berriko eskolako haiek
bazuten kezkarik, irakaskuntza elebi-**

duna ez ote zen zurigarria besterik, hizkuntza gutxituari zegokion estatus eta maila behin ere ez emateko argudioa. Has-teko, eskola hartan guztiz galarrizia zuten ingelesaren erabile-ra.

Uste dut hezkuntza elebiduna ez dela bera bakarrik aski. Dena dela, hezkuntza elebiduna ez da hizkuntza biziberri-tzeko giltza, ez da erantzuna. Gizartearen gainerako arloetan ere errekonozimendua

behar du hizkuntza gutxitu horrek, benetan erabil dadin, benetan izan dezan presentzia. Bestalde, bereizi egin behar dira hizkuntza, eta ahotsa, hizkuntza hartan ahotsa izatea. Ahotsa izatea da hiztunak entzuna izateko duen ahalmena. Delako hiztunak entzun dezaten lortzen baldin badu, botere halako bat izango du. Inork entzuten dizunean, erantzuten dizunean, alde edo kontra hitz egiten dizunean... esan nahi du esaten ari zarenak inportantzia duela. ■



**Bertsolari
Txapelketa
Nagusia 2013**

KANPORAKETAK

AMASA-VILLABONA

Behar-Zana pilotalekua

Irailak 29, 17:30ean

Elia
Martín

Fredi
Paia

Iker
Zubeldia

Jon
Martín

Nerea
Elustondo

Odei
Barroso

www.bertsozale.com

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

Frankismo garaiko lau torturatzaille atxilotzeko agindu du Argentinak

Tartean dago Jesús Muñecas guardia zibil ohia, Andoni Arrizabalaga Itziarren Semeak eta Anparo Arangoa leitzarrak jasandako torturen erantzuleak jo izan dena.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ARGENTINAKO María Servini de Cubria epaileak frankismo garaiko ustezko lau torturatzaille atxilotzeko nazioarteko agindua eman du, frankismoaren krimenen kontra abiarazitako auzian inputatu gisa deklaratu dezaten. Honako hauek daude Interpolen jomugan: Celso Galván Abascal Espainiako Errege Etxeko eskolta ohia –2009an hila–, José Ignacio Giralte González poliziaren komisario ohia, Juan Antonio González Pacheco inspektorea –Billy el Niño izenez ezagun egin zena–, eta Jesús Muñecas Aguilar guardia zibilen kapitain ohia.

1968an Andoni Arrizabalagari Zarautzen eragindako torturengatik eman du Muñecas atxilotzeko agindua epaileak, Jon Ugutz Arrizabalaga anaiaren testigantza aintzat hartuta. Kasua dokumentatzeko 1977an kartzelatik irten zenean Joseba Sarrionandiarekin Zeruko ARGIA izandako elkarrizketa ere hartu du kontuan epaileak. Bertan, guardia zibilek egindako torturak kontatzen



Erdian, Andoni Arrizabalaga, 1977an kartzelatik atera berritan.

ditu ondarrorak: “Zelda batean bakarrik aurkitzean, komisariatik pasatuta zoriotsu izan nintzen”.

Gerora ere, Muñecas beste tortura kasu batzuetan inplikaturik egon zen Tolosan eta Donostian.

1976an Anparo Arangoa leitzarrak jasandako torturen argazkiak ezagun egin zirenean, Tolosako kuarteleko kapitaina tokiz aldatu zuten. Muñecas *Estrella Digital* atariari adierazi dio “pistolero” batzuek hil nahi zutelako aldatu omen zutela lekuz, eta ez torturetan nahasia egozteagatik. Aitzitik, atxilotuekiko zuen jokabide ankerra *vox populi* zen garai haietan. Tolosan lanean zebilen Joaquín Navarro epaileari “gaizkile politikoak gorroto” zituela azaldu zion behin kapitainak.

Tokiz aldatzeak ez zion eragotzi, antza, gorroto berarekin torturatzen segitzea. Justicia y Paz elkarteak 1976an kaleratutako testigantzetatik iradoki daitekeenez, Donostiako kuartelean izandako tortura kasue-

tan nahastuta ibili zen. Torturatua izandako Jesus Lasa elizgizonak Muñecas ezagutu zuen: “Sei torturatzaille agertu ziren, Tolosatik lekuz aldaturiko kapitaina buru zutela”.

Antonio Tejero koronelarekin 1981ean estatu kolpea eman zuen Muñecasek, baina ez zuen denbora gehiegi kartzelan iraun. Geroztik Valdemoron bizi da, egun 74 urte ditu.

Ez dirudi Espainiako Gobernuak estradizio eskaera beteko duenik, Servinik torturen bik-

timen testigantza jasotzeko jarritako oztopoak ikusita; Auzitegi Nazionalaren esku utzi du erabakia Alberto Ruiz Gallardón Justizia ministroak. Hala ere, frankismoko biktimen elkarteek garaipen garrantzitsutzat dute epailearen erabakia. ■

argia.com Angelu Ikua blogean auziari buruzko dokumentuetara sarbidea.



Itziarren alaba



ARGIAREN multimedia atalean ikusgai dago 1976ko Anparo Arangoaren tortura kasuaz eta Zeruko ARGIAK ezagun egin zituen argazkiez bideo-erreportajea

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

‘Mihia Pitz’ telebista saioa, zuberotar gazteak euskarara hurbil daitezen

LAURENT BÉGUERi Azia elkarteko presidentea da. Haren esanetan, Zuberoako gazteek euskara ulertzen dute eta etxean erabiltzen dute, baina kanpoan gutxi hitz egiten dute.

Ahalegin horretan elkar hartu dute Azia elkarteak eta Aldudarrak Bideo kooperatibak. Euskararen erabilera bultzatzeko *Mihia Pitz* telebista saioa abiarazi dute. Joan

den ostiralean (irailak 20) ziren lehenengo atala grabatzekoak. Talde arteko jokoak ditu oinarri saioak eta estreinaldian Urdiñarbe-ko, Barkoxeko, Gamere-Zihigako eta Hokiko (Sohutako auzoa) gazte talde bana bildu zen Urdiñarben. Lau jokotan hartu zuten parte: dantza, mimoa, hitz jolasa eta Zuberoako kantuekin karaokea. Ikusleek berebiziko

garrantzia dute saio berri horretan, haien txalo zaparraden arabera aukeratuko baitira talde txapel-dunak. Euskara ulertzen ez duten ikusleentzat itzulpen zerbitzua egongo da eta aurkezlearen eta lehiakideen hitzak ulertu ahal izango dituzte.

Saioak Kanalduden, Azia elkartearen webgunean eta TVPIIn emituko dituzte.

Bahea

Xabier Lasak Berrian esanak:

“Poz txikia eragin digu inoiz baino euskara gehiago (ez aski) erabili izanak alderdi guztiek osteguneko eztabaidan. Eta poza, Urkullu lehendakariak euskarazko hedabide bati —Elri— eskaini izanak lehen elkarizketa politika orokorreko eztabaidaren ostean. Datu horiek normaltasunez hartu beharko lirateke herri normalizatu batean, baina ez da gure kasua. Ez hori bakarrik, Maite Artola esatariak estu hartu izanari esker, Urkulluk erabakitzeke eskubideari buruz legebiltzarrean esan gabekoak jaurti zituen irratian; deigarriak egin dira batzuentzat, eta, ondorioz, erdal medioek euskaraz esanak jaso behar izan dituzte ostiralaz geroztik. Sinbolikotik haratago doazen jarrera publikoak dira horiek, erabilpenari buruzkoak. Horiekin azpimarra egitea politikariei presio edo markajea egiteko modua izan daiteke”.



DANI BLANCO

Iñigo Urkullu, EAEko lehendakaria.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Berezko pentsio sistema defenda dezagun

PENTSIONISTEN ZATI HANDI BAT erabat kezkatutik dago pentsioen etorkizunarengatik. Gauza bera gertatzen zaie lanean dabiltzanei, baita lanik eta etorkizunik gabeko gazteen gudarostea osatzen duten lagunei ere. Errua sistema kapitalistak dauka, urtero pentsioen murrizketa larriagoa inposatzen baitie ohiko politikari eta gobernuai, aseguru etxeek, finantza enpresek eta bankuek etekin handiagoa izan dezaten.

Azkeneko egunetan eztabaida puri-purian dabil, Espainiako eta Frantziako gobernuak erreforma erradikalen alde egin baitute, eta pentsionistei eskubideak eta erosteko ahalmena murriztuko dizkiete. Espainiako Gobernuak bederatzi urtetan 33.000 milioi euro murriztu nahi du pentsioen gastua. Hala, pentsionistei erosteko ahalmena gutxituko zaie urtetik urtera. Kalkulu batzuen arabera batz besteko pentsioak —981 euro hilean—, urtean 1.500 euro galduko ditu datozen sei urteetan.

Euskal herritarrek bi estaturen inposizioa jasaten dute, euren subiranotasuna mugatzen baitute. Bertako pentsioak Madrilen eta Parisen erabakitzen dira, eta Euskal Herriak ezin du bere dirua kudeatu eta administratu herritarren ongizatea bermatua izan dadin. Berezko pentsioen sistema aldarrikatu behar dugu, baita lan harremanetarako berezko markoa ere. Euren burua subiranistatzat dutenek balore horiek praktikatu beharko lituzkete, juridikoki subiranoak ez izan arren. Berezko pentsioen sistema kudeatzen ez dugun bitartean, autonomi, foru eta udal boterean dauden horiek subiranismo hori ezarri beharko lukete, pentsio baxuenak osatzeko irtenbide onenak bilatuz. Subiranismoa ekitzen bidez gauzatzen baita. Eta Madrildik nahiz Paristik mugak jartzen dizkiguten arren, badago tarterik horretarako.

Juan Mari Arregi



Hirietako hormigoi gainean, kaletarren ortu berriak

Munduko jendeen %50 baino gehiago hirietan bizi denean eta hirietan daudelarik 250 milioi pertsona gosetu, asfalto arteko baratzeen hedatzea mundu mailako fenomeno da. 800 milioi omen dira hirietako ortuekin loturaren bat dutenak. Modatik edo krisi une bateko biziraun beharretik askoz haratago doan fenomeno da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HIRIKO NEKAZARITZAK EZ DU inoiz bermatuko hiri handiak janariz asetzea, baina bihur daiteke laborantza merke eta errentagarria batik bat energia eta garraioa kontutan harturik. Horrela hasi da *Reporterre* guneak irail honetan plazaratu duen “*L’agriculture urbaine est en plein essor*” artikulua. *Noticias de Arquitectura* ekainean argitaratu du “*El mayor huerto urbano del mundo situado en una azóteda*”, kontatuz nola hektarea bat osatzen duten New Yorkeko zentroko bi eraikin komertzialen teilatu lauetan antolatutako baratzeek. Interneteko bilatzaileetan *Urban farming* edo *Urban agriculture* galdetuz, ezin konta ahala informazio topa daiteke.

NET HURBIL honetan kontatu izan ditugu krisiaren eraginez hiri handietako hormigoiaren zirrikietan sortu diren baratzeak. Batzuetan krisi ekonomikoa da, energiaren urritasunari lotua: sobietarren sistemaren hondoratzeak Kuba utzi zuen ordura arte inportatzen zituen elikagairik, zeukan nekazaritza mekanizatuarentzako piezarik eta petroliorik gabe, kaletarrak asetze-ko plaza eta parkeetan baratze *organopónico* famatuaren sorrera ekarritz.

Gerrak eragindako eskasiak antzeko fenomeno eragin izan du, Amerikako Estatu Batuetan *Victory Gardens*, Erresuma Batuan *Digg for*

Victory (Garaitzeko jorratu) kanpainak... 1929ko krisi ekonomikoak ere antzeko fenomenoak piztu zituen. Euskal hirietan baratzeen ugaritzearekin bizi den fenomenoak badu zerikusirik horrekin.

Bada hirietako lurzorua ortu bihurtzea dakarren beste korrante bat, sistema auzitan jartzeko edo sistema alternatiboaren oinarriak eraikitzeko ahaleginei loturik. Elikagai osasungarriagoak, harreman ekonomiko bidezkoagoak, globalizazioaren kritika... hori eta gehiago datza hainbat kontsumo talde eta herri baratze asmotan. Asanblada Agro-ekologikoa dauka Bizkaiko Uribe Kostak, ortuak hasi dira landatzen zenbait gaztetxe, udalek langabetuei arnasa hartzen laguntzeko ortuak antolatzen dituzte, adibideak asko dira. Ahaztu gabe balkoi eta leihoetan landatzen dituztenak, gero eta ugariagoak.

Hiriak betidanik ezagutu ditu oilategi eta bestelako ukuiluak bezala baratzeak. Agian oraingo berezitasuna da XXI. mendea aurrera doan honetan hasi direla berpizten azken hamarkadetan haien oroimena ere galdua zeukaten metropolietan, izan Paris, Londres edo New York. Eta horrekin batera, proiektu komertzialak ere sortu direla baratzeen inguruan, jaki fresko eta osasuntsuak eskatzen dituzten kaleta-

Cyrus Dowlatschahik egindako argazki honek ez dago *Photoshop*ik, egiazkoa da osorik: New Yorkeko *sky-line* ospetsuarekin kontrastea egiten du Brooklyn auzoko teilatu lauan landutako ortuak. Brooklyn Grange konpainiak megapolian dauzkan bi baratze handietako baten ekialdeko muturra erakusten du irudiak; Standard Motor Products konpainiaren zazpigarren solairuan 4.000 metro koadro hartzen ditu, Northern Boulevard karrikan. Bigarren ortua Armadaren ontziola zaharrean dauka (Brooklyn Navy Yard), 6.000 metro koadro 11 solairuko eraikinaren terrazan. Bien artean osatzen duten hektarea bat lurretan 18 tona barazki ekoizten dute urtean. Oiloak eta erleak ere badauzkate. 2010ean sortua, enpresa komertzial moduan dago antolatuta, nahiz eta bere jabegoan parte hartzen duten kapital pribatuak, zenbait diru funtsek eta *crowdfunding* moduan bildutako herritarren diruak.

rrengandik hurbil, horiek haztea errentagarri izan daitekeelakoan.

Espainolez irakurtzen dutenen artean azken aldian aipamenak egin zaizkio Graciela Arosemena arkitektoak plazaratu duen *Agricultura urbana* liburuari. “XIX. mendeko hirian –dio– kezka nagusia zen kalea higienizatzea, kutsadura oro esportatuz, barruko hiritarrak babesteko, ohartu gabe esportazio horrek zekarrela ingurumena eta lurraldea hondatzea”.

Aldiz, hemendik aurrera iraunkorra izango bada hiriak integratu beharko ditu janariaren ekoizpen, prozesatze, banatze eta kontsumoa bertako ingurumenean eta inguru sozioekonomikoan. Zikloak lekuan itxi beharko dira, herritarren hondakin organikoak beren baratzeak ongarritzeko berrerabiliz.

Lurralde antolamenduan sartu

Hiriko ortuak garrantzia nonbait edukitzekotan, herrialde txiroetan dauka. Baina Mendebalde aberatsean ere gero eta indar handiagoa hartu du. Ameriketara begiratzea aski.

Brooklyn Grange konpainiako sortzaile Anastasia Colek esana du: “Hiriak beti beharko ditu baserriak elikatzeko; baina aukera handiak ematen dituzte erabili gabe dauden teilatu gainetako baratzeek: hiriko bizi kalitatea hobetzen dute, lanpos-



tuak sortzen, barazki fresko osasuntsuak eskueran jartzen, eta hiria maite dutenei ingurumenaz eta laborantzaz heziketa ematen die”.

Gai honetan mugimendu handia Kanadan ikusten da. Vancouverren, Toronton, eta batez ere Montrealen. *Le Journal International*en Antoine Boyetek idatzi du: “Montreal, etorkizuna teilatueta dago”. Hiri-ko laborantzaz antolatutako lan taldeak 29.068 sinadura bildu zituen 2011n, Udalak jarduera hori lehene- tsi dezala eskatuz.

Hori baino lehen, 1970eko hamarkadan Quebecoko hirietan baratze asko sortu ziren, krisiaren eraginez. Geroago, unibertsitateko talde batek sustatu zuen *guerrilla gardening* delakoa, erabili gabeko herri-

lurretan baimenik gabe landatzea edo hazi-bonbaz (*seed bombing*) erei- tea. Unibertsitatearen terrazetan ortuak landatu eta erlategiak paratu zituzten. 1995ean *Santropol Roulant* taldea sortu zen, elikadura baliatuz bazterketa soziala borrokatzeko.

Baina Montrealgo esperientziak kume berezi bat erditu zuen 2011n: teilatu gainean eraikitako negutegi komertziala. Lufa Farms da, Antonio Boyeten hitzetan, hiri barruko terrazan eraikitako lehena. Ez azke- na, ordea; konpainiaren sortzailea den Mohamed Hagek uste du Mon- trealeko eraikinen gainean badela aski terraza hiri osoa elikatu ahal izateko.

Kaleko laborantza dei dakioke konplexurik gabe. Ekologo, agro-

nomo eta geografoa den Pierre Donadieuk 1995ean plazaratu zuen *Campagnes urbaines*, baserri hiritar- rak. Gaur erretretan, hitzaldiak ematen segitzen du. Berrikitan elkarriketa batean azaldu du: “Mendebaldeko hiria hasi berria da bere funtzio laborari-elikatzailea [*agroalimentaire* eta *agriurbanisation* aipatu ditu], eta hau urbanista gehie- nen eta hautetsi gehienen intuizioa- ren aurka doa”.

Donadieuk hiriko laborantza jotzen ditu eskualde hiritartuetan eta metropolien inguruan garatzen diren landare eta azienda hazteko ekintzak. Hor sartzen ditu batetik laborantzari lotutako profesionalak eta modu amateurrean ari direnak. Lurralde antolaketan ari direnek, arkitekto, plangintza egile, soziolo- go, politikari hautetsi, funtziona- rio... gero eta gehiago eduki behar- ko dituzte kontutan elikagai sortzaile horien beharrak. Sostengu testimonialetik aitzina egin eta jar- duera horientzako lurzorua zain- duz, esaterako.

Lanpostu ugari sortzen du kale- ko lugintzak. Baina gainera lan- postu berriak ari da sorrarazten, batzuk agroekologiaren ildotik ari direnak, baina negutegi eta beste- lakoetan ere ari dira ikusten oso hautu teknologizatuak: lurrik gabeko sistema hidroponikoa, arraien gorotzarekin dabilen akua- ponikoa...

Balkoian landatu tomate aleen edo letxuga-hostoen zaporeak maite dituen irakurleak, jakin beza mundu mailako korron- te baten kide dela. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Gobernagarritasun estrategikoa

EAJ-K PSE-EErekin akordioa sinatu ondoren, EAEko 2014ko aurrekontuak salbu daude. Eta aurreikusi gabeko ezer gertatzen ez bada behintzat, Urkullu lehendakariaren legealdia ere bai. Urrutitxo geratzen dira oraindik udal hauteskundeak, baina diputazioak eta udalik garrantzitsuenak ere bai akaso. Gobernagarritasuna, hori da bi alderdien akordioan lerro artean irakur daitekeen berba nagusia.

Paperean krisiaren aurkako borroka eta zerga politika finkatu dira. Baina garrantzi honetako akordio batean, lotzen dena bezain garrantzitsua da kanpoan uzten dena, eta bakea eta autogobernua kanpo geratu dira. Akordioaren usaina estrategikoa da, nahiz eta gaur egun horrek politikan balio handirik ez duen.

PP gaitza, baina EH Bildu ez da akordioan izango, hori garbi dago, bai berau landu den moduagatik, bai edukiagatik eta baita ere oposizioa ia osorik orain bere bizkar geratzen delako. Horrek ez du esan nahi hainbat edukitan ezin dezaketarik bat egin. Zerga kontuetan bat egin dezake hainbat puntutan, nahiz eta bere ikusmolderako motz geratzen den. Elkarleen zergetan eta kapitalaren zergetan, esate baterako, oso motz geratu da akordioa, baina oro har proposatzen duena zegoena baino hobea da eta hor bada elkar lanean aritzeko tarterik.

Zeresanik ez iruzur fiskalaren esparruan, akordioaren testuari begira behintzat, zerbait serioagoa egiteko gogoia bide dago. Errealitatean, ordea, mesfidantza asko



IREKIA. EUSKADEN

izateko arrazoi ugari dira, batez ere bi alderdi hauek izan direlako azken 30 urteetan Eusko Jaurlaritza eta diputazioak bideratu dituztenak eta iruzur fiskalaren esparrua txikitu baino handitu egin delako denbora horretan guztian. Gaur egun aipatzen da zerga iruzurra 13.500 milioi euro ingurukoa dela EAEn (GESTHA, Espainiako Ogasuneko funtzionarioen sindikatuaren 2012ko datuak). Ondorioz, urtero galtzen ei da 2.500 milioi bat euro biltzeko aukera. Mesfidantzak uxatzeko

Ez dut zalantzarik herritar asko dagoela gustura EAJ-PSE akordioarekin, korrante zabal baten adierazpide bada behintzat

lehen baldintza: gaia landu behar duen erakunde arteko batzordeak herritarrei argi eta garbi azaltzea iruzurraren aurkako plana zertan oinarrituko den. Hortik aurrerakoan praktikak erakutsiko du.

Ez dut zalantzarik herritar asko dagoela gustura EAJ-PSE akordioarekin, korrante zabal baten adierazpide bada behintzat. Lasaitasuna eskaintzen du, krisi garai honetan akaso irtenbide batzuk eta egonkortasuna adierazten du.

Bizitzia. Lasai kontsumitzea. Funtsean, euskal gizartean oso ondo bizi garena erakutsi nahi duen korrante zabala da. Eta neurri batean ez zaio arrazoirik falta.

Orain, aldiz, krisiak gure egoera itsusten du, eta nola gainera. Eta Wert Legea indarrean jartzen denean? Eta berdintsu ote da ia 80 euskal herritar

epaituko dituztela urrian Espainiako Auzitegi Nazionalean ETAk armei agur esan zientetik bi urtera? Eta 600 presoak? Eta haien milaka senideren joan-etorriak? Eta bigarren mailako ehunka biktima horiek? Milaka horiek akaso? Nekez pentsa liteke hori guztia desagertu denik euskal gizartetik, baina oztupo zen akordiorako, eta oraingoz ubide nagusitik baztertu dute. Ea zenbat denboraz.


Autogobernua dela eta, 2015era arte bederen ez dago ezer erabakitzerik, jeltzaleek orduan argituko dute zer nahi duten. Bitartean “egunero erabakitzen da” eta kito. Eta ez da arrazoi faltarik baieztapen honetan, baina egun batzuetan bestetan baino gehiago erabakitzen da. Alde horretatik, eta bere barne kohesioari eustea

lortzen badu, soberanismoaren esparru zabala libreago geratzen zaio EH Bilduri. EAJ, aldiz, ziur da bere zentralitateaz eta ez dirudi horrek uneon kezka handirik ematen dionik. Argi baina, Eskozian eta Katalunian gertatzen denarekin. Krisiak hobera egitea hauspo izango du, berdintsu jarraitzen badu, adi ibili liteke, CiU ahaltsuaren adibidea ere hor dago eta. ■



ASTE HONETAKO

zozketa




Bertsolari Txapelketa Nagusia

2 harpidunentzat
bina sarrera

Urriak 5, larunbata 17:30ean
Udal pilotalekuan
Markina-Xemein (BIZKAIA)

www.bertsozale.com

1



Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Artez euskara zerbitzua

8 harpidunentzat
lizeo agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2382. Argia)

A FUEGO NEGRO Jatetxea

- Xabier Otegi Irastorza (Gasteiz)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)
- Iruñe Iturbe Arriola (Aretxabaleta)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Itsaso Larretxea Alvarez (Donostia)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Elgoibarko aek Euskaltegia (Elgoibar)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Irakasle agenda

- Maite Aboitiz Atxurra (Bilbo)
- Ibai Oihanguren Sala (Eskoriatza)
- Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Joana Etxart (Maule)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)
- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Kepa Gorordo Basaras (Durango)

OKATXU Komikia

- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com